

## **LIZARTZAKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN DOKUMENTUA.**

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, 6. artikuluan eta 10/2021 Legearen, abendua 9koaren, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, 72. artikuluan eta II.A) eranskinean xedatutakoari jarraituz, nahitaez egin behar da hiri antolamenduko plan orokorren –HAPO, aurrerantzean–, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunteko ohiko prozedura.

Ildo horretan, Lizartzako Udalak HAPOa izapidetzeko prozesua hasi du, eta, hortaz, 21/2013 Legearen, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, 18. artikuluari jarraituz, 2024ko martxoaren 13an Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion planaren ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura has zezan.

Horri dagokionez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta 10/2021 Legeak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, planak eta programak prestatzerakoan ingurumen alderdiak txertatze aldera, ingurumen organoak irismen agiri bat egin behar du ingurumen azterketa estrategikoak izan behar duen hedadura, xehetasun eta zehaztapen maila finkatzeko. Aldez aurretik, dena den, kontsulta egin behar zaie ukitutako administrazioei eta pertsona interesdunei.

Horrenbestez, 10/2021 Legearen 62. artikuluari eta 4/2023 Foru Dekretuan, ekainaren 30ekoan, eta haren geroko aldaketan –6/2023 Foru Dekretua, uztailaren 14koa– xedatutakoari jarraituz, Ingurumen Administrazioiko Zuzendaritza Nagusi honek proposatzen du Lizartzako HAPOaren irismen dokumentu hau egitea.

### **1.- LIZARTZAKO HAPO-AREN ANTOLAMENDU EREDUA ETA ALTERNATIBAK**

Lizartzako Udalak ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoari hasiera emateko bidalitako dokumentazioa osatzen dute aurrerakinak, hasierako dokumentu estrategikoak eta dokumentu horietako bakoitzari dagozkion planoeak.

Aurrerakinak diagnosiaren sintesia egiten du, eta han zehazten ditu ingurune sozial, fisiko eta hirikoan identifikatutako arazoak eta aukerak. Halaber, zenbait baldintzatzaile gainjarri definitzen ditu, arrisku naturalei eta klima aldaketari, azpiegitura berdeari eta interes naturaleko espazioei, eta bestelako sektoreko araudiei –kultur babesa, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, zonakatze akustikoa, zortasun aeronautikoak eta salgai arriskutsuak garraiatzeko arriskua– dagozkionak. Jarraian, antolamenduko helburu orokorrak eta oinarrizko irizpideak ezartzen ditu. Azkenik, antolamendu alternatibak deskribatzen eta aztertzen ditu, hala ingurune fisikoarenak nola hirikoak.

Honako hauek dira, labur-labur Lizartzako HAPOaren aurrerakina egiteko proposatutako oinarrizko irizpideak:

#### **A. *Ingurune fisikoa.***

- Zonakatze berria egitean kontuan hartzea baliabide hidriko ugariak –Araxes ibaia, interes hidrogeologikoko guneak, ura biltzeko puntuak eta abar– eta baso masa handiak.
- Ingurune naturalaren balioa aintzatestean eta EAEk hartutako ingurumen konpromisoak txertatzean oinarritutako ingurune fisikoaren lurralde antolamendua proposatzea.



- Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea lehenestea, lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik.
- Balio ekologiko handiko guneen arteko konektagarritasuna sustatzea, ingurune naturalaren zatikatzea murriztuko duten korridore ekologikoak sortuz, biodibertsitatea hobetzeko oinarri egokia sortzeko sare bat era dezaten.
- Dauden isurketak bukatzea, ur zikinen saneamendu sarearen adar posibleak planifikatuz, baserri taldeak dauden goiko guneei zerbitzua emateko, edo autoarazketarako bestelako sistemak, osterantzean.
- Ur ibilguen eta ur harpenen eraginpeko guneeetan erabilerak arautzea eta ibilguak berreskuratzea, ingurumen irizpideei jarraituz.
- Babes bereziko gunek planifikatzea eta ekosistemen ingurumen hobekuntza, eta udalek lurzoru estrategikoak erreserbatzea eta era publikoan kudeatzea.
- Batasunaren intereseko habitatak narria daitezen saihestea eta bisoi europarraren habitata babesten, mantentzen eta berreskuratzen dela bermatzea.
- Kalitate akustikoko helburuak betetzen direla ziurtatzea.
- Energia berriztagarrien instalazioen ezarpena arautzea, ingurumena errespetatuz egin dadin.
- Ondare eraikia babestea eta haren balioa aintzatestea, baita elementu txikien eta natura intereseko elementuena ere.

#### **B. Hiri ingurunea**

- Dagoeneko artifizializatutako lurzoruak erabil daitezen lehenestea, bereziki nekazaritzako lurzoru eta lurzoru naturala babesteko.
- Hiri segregazioa eta sakabanaketa saihestea.
- Hiri azpiegitura trinkoak, konpaktuak eta konplexuak sustatzea, planteatutako beharrei erantzuteko.
- Era mistoan eta malguan planifikatzea lurzoruaren erabilerak.
- Garapenak garraio publikorako eta/edo auto pribatuaz besteko garraiobideetarako irispide ona duten lurzorueta egitea, uren hornidura eta saneamendu sareetarako sarbidea dutenetan, efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak dituztenetan eta ur ingurunea, haren zerbitzuak eta ingurua kontserbatzeko aukera ematen dutenak.
- Uholde arriskua duten guneeetan hirigintza garapenak ezar daitezen saihestea.
- Egoera naturalean dauden ibilguak zuzendu edo kanaliza daitezen saihestea.
- Garapen berriak eskaria asetzeko adina baliabide hidriko egotearen baldintzapean jartzea.
- Erabilera bateragarri, espazio libreari eta zuzkidurei dagokienez plangintza orekatuaren alde egitea.
- Industriaguneeen funtzionamendua hobetzeko irizpideak txertatzea, eta, horretarako, eraikuntzako eta hirigintzako ordenantzetan zenbait irizpide txertatzea, eraikuntzen irudia hobetzea eta bestelako alderdiak txertatzea, esaterako, energia berriztagarriaren ekoizpena, haren autokontsumoa eta efizientzia energetikoaren hobekuntza.
- Tokian-tokian udalerriko landare hondakinak eta/edo gainerako hondakin organikoak biltzeko kudeaketa egokia ezartzea, behar diren azpiegiturak sortuz.



Irizpide horien arabera, inguru fisikoaren eta hirikoaren askotariko alderdietarako alternatiben proposamena egin zen. Alderdi horietarako bakoitzerako lehendabizi aztertutako alternatiba beti izan da 0 alternatiba, hau da, egungo egoera mantentzea, baina behin ere ez da horren alde egin. Halaber, aintzat hartutako alternatiben hasierako ingurumen analisia egin zuen hasierako dokumentu estrategikoak, eta adierazi zuen zeintzuk diren egokienak ingurumenari dagokionez. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da aurrerakinak ez duela behin betiko bat ere aldezen.

Laburtzeko, honako hauek dira alderdi bakoitzerako aurkeztutako 0 aukeraz besteko alternatibak:

- A. **Hiri eredia eta lurzorua okupatzeko estrategia.** 1 alternatiba eredu konpaktu bat da, erdigunea udalerraren herrigunean duena, eta okupazioa egun urbanizatuta edo narriatuta ez dauden lurzoruetatik kanpo uzten duena. Ondorioz, A2. Zerrategi, A4.3 Etxeaundia eta U.A.4 Zuloaga eremuen sailkapena kentzen da, ez dituztelako betetzen 2/2006 Legearen 11. artikulua arabera hiri lurzorutzat jotzeko baldintzak. Aitzitik, pilotalekuaren ondoan kokatutako partzela, gas deposituak dituena, hiri lurzoruaren mugen barruan ezartzen da. 2 alternatiba 0 eta 1 alternatiben arteko aukera bat da; izan ere, aukera ematen du urbanizatu gabeko lursail batzuetan esku hartzeko, eta egun hiri lurzoruaren barruan dauden lurzoru batzuen sailkapena kentzen du. Hain zuzen, A2. Zerrategi eremua eta A4.3. Etxeaundia eremuaren zati baten sailkapena kentzen du. Gainera, 6 gune hauek proposatzen dira lurzoru urbanizagarri moduan sailkatzeko: 3 bizitoki gune –egungo U.A.4 Zuloaga; 5.234 m<sup>2</sup>-ko beste bat, Aztinondo pilotalekuaren mendebaldean dagoen magalean; eta 1.280 m<sup>2</sup>-ko beste bat A.2. Zerrategi zaharraren lursailen zati batean–, egungo A.7 Iruntzialdea eremua handitzea, 8.457 m<sup>2</sup> jarduera ekonomikoetarako sailkapenarekin, eta, azkenik, 2 aparkalekuetarako –bata Gurutz kalearen iparraldearen alboko partzela batean eta Urondo kalearen pareko lursail batzuetan–.

Hasierako dokumentu estrategikoaren iritziz, ingurumenaren ikuspegitik aukerarik onena 1 aukera da, lurzoru urbanizaezina okupatzea saihesten duelako eta, gainera, urbanizatu gabeko hiri lurzoru gehiago desklassifikatzen duelako. Ondorioz, 9,23 ha-ra txikitzen du ingurumen balioko landarediaren azalera, eta 2 aukerak, aldiz, 10,70 ha-ra. Batasunaren intereseko habitatetan duten eraginari dagokionez, 1 aukerak 3,02 ha-ri eragiten die, zeinetatik 0,53 ha lehentasunezko habitatak baitira –0,33 91E0-ekoak eta 0,20 ha 6210koak–; 2 alternatibak, ordea, guztira 4,10 ha-tan du inpaktua, zeinetatik 0,72 ha lehentasunezkoak baitira (0,52 ha 91E0-koak eta 0,20 ha 6210koak). Nekazaritzako lurzoruari dagokionez, 1 alternatibak ez die eragiten balio agrologiko handiko lurzoruei, eta 2 alternatibak aldiz, bai, A.7 Iruntzialdea gune urbanizagarrian. Gune hori bera bisoi europarraren eragin gunearen barruan dago, eta, hortaz, alternatiba horrek eragin handiagoa du faunan 1 alternatibak baino.

- B. **Lurzoru urbanizaezina (LUE).** 1 alternatiba moduan proposatu da Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSan jasotako antolamendura egokitzea, zorrotz, eta, 2 aukera moduan, aurrekoaren aldaera bat, hau da, lurzoruen egiazko egoera zehatzago aztertu eta LPSaren zonakatzea aldatzea, egungo egoera zehatzago islatzen duen alternatiba bat proposatzeko. Horrek esan nahi du, besteak beste, *Babes berezia* kategorian sartu direla baso autoktono batzuk, Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak, Tolosaldeko LPPan ezarritako natura intereseko eremuak eta espezie mehatxatu gisa katalogatutako animalia edo landare populazioak dituzten eremuak. Gainera, *Ingurumen hobekuntza* kategorian sartu ditu Tolosaldeko LPPan jasotzen diren kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioko lurzoruak, baso narriatuen guneak eta ekosistema hobetzeko eta basoa kontserbatzeko guneak. Halaber, nekazaritza balio estrategiko handiko lurzoru babestuen azalera birdefinitzen eta handitzen du. Horrekin batera, trantsizioko landa paisaiaren azpikategorian sartutako eremu batzuk txikitu dira, azken hamarkadetako baratze jardueraren atzerakadari aurre egiteko. Baldintzatzaile gainjarriari dagokienez, arrisku naturalen eta klima aldaketaren, azpiegitura berdearen eta interes naturaleko espazioen ingurukoak txertatuko dira, baita bestelako sektoreko arauen ingurukoak ere, esaterako, kultur ondarearen eta zonakatze akustikoaren ingurukoak.



Azkenik, udalerriaz gaindiko sarea osatzeko korridore ekologikoen sare baten hasierako diseinua proposatu da, baita lurzoru erreserbak sortzea ere, konektagarritasun ekologikoko edo natura intereseko eremuen helburuak betetzeko behar beste lursail lortzeko. LAJen duela gutxiko berrikuspenetan ezarritako jarraibideak aintzat hartuta, ikuspegi juridikotik, 0 eta 1 alternatibak baztertu beharrekoak dira, ez baitute betetzen egun indarrean dagoen legedia. Gainera, 2 alternatibak antolamendu osatuena eta eremua ondoen ordezkatzeko duena dauka, eta egungoa osatzeko tokiko korridoreen sare baten hasierako diseinua ere badu, lotura moduan balio duena lurraldeko ingurumen balio handieneko eremuentzat.

- C. **Mugikortasuna.** 1 aukera udalak idatzitako Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planeko (aurrerantzean, HMJP) neurrietara egokitzen da. Horrez gain, hainbat leku proposatu dira aparkalekuetarako –Eibarrena kalea, Urondo kalea eta Gurutze kalea–, eta Kale Nagusiaren zatia aldatzea ere bai, bizikidetzat gune bihurtzeko. Halaber, Tolosaren eta Lizartzaren arteko bizikletazko konexioa sartzeko proposatu da, Gipuzkoako Bidegorrien Oinarrizko Foru Sarearen barruan. Gainera, ekintzak planteatu ditu ikusgaitasuna hobetzeko, trafikoa baretzeko, baita oinezko bideak ere. Horren guztiaren adibide da Kale Nagusira sartzeko kurba eta Orexarako desbideraketa aztertzea. 2 alternatibetan, 1 alternatibako jarduketak txertatzeaz gain, proposatu da txirringularen eta oinezkoen ardatz nagusia adarkatzea (Errekaldetik Zumitzagara), eta planteatu da udalerraren inguruan ibilbideen sare bat ezartzea, herritarren paseoak eta oinezko mugikortasuna sustatzeko. Horretarako, herri osoan ibilbideak izango dituen diseinu bat iradoki da, eta ibilbide itxiak eta zirkularrak egitea herrigunean, baita ibilbide horiek egokitu daitezkeen eta aurretik dauden bideen bitartez handituko dituzten luzapenak ere. Horien artean azpimarratzekoa da Araxes ibaiaren ezker ertzetik eta Zerrategi zaharreko meandroan barrena hegoalderantz Insalusen instalazioekin konektatzeko doan bide berriaren proposamena.

Hasierako dokumentu estrategikoak aintzat hartzen du ingurumenaren ikuspegitik 1 eta 2 alternatibek jasangarritasun irizpideetan oinarritutako jarduketak dakartzatela, handiagoak 2 alternatibetan, 1 alternatibaren parte ez diren jarduketa gehigarriak baititu. Horrenbestez, bigarren alternatiba hori da ingurumenaren ikuspegitik bideragarriena.

- D. **Espazio libreak.** 1 alternatibak proposatzen du egun hirigintzako plangintzan jasotako espazio libre guztiak sartzeko, dagoeneko garatuta daudenak. Plaza nagusia, Soro plaza eta egungo hiri baratzean txertatzen ditu, guztira, 7.282 m<sup>2</sup>. 2 alternatibak, gainera, A eta B aldaerak ditu, lurzoru urbanizaezin izaten jarraituko lukeen Zerrategia eremu zaharrean ibai parke bati eman beharreko azaleraren arabekoak. Hasierako dokumentu estrategikoak ondorioztatzen du 2 alternatiba dela bideragarriena ingurumenari dagokionez; izan ere, 1 alternatibakoez gain beste jarduketa jasotzen ditu, eta, gainera, irizten dio parkeetara eta berdegunetara bideratutako espazio libreak ugaritzea positiboa dela, udalerraren hiri eremuak natura ingurunearekin lotzen dituela, aire zabalean jolas jarduerak egiteko espazioak ematen dituela, gainera, airearen kalitatea hobetzen duela, eta, hortaz, herritarren osasunean eragin positiboa duela. 2 alternatibaren A eta B aldaerei dagokienez, biak jo dira ingurumenerako positibotzat, eta, beraz, aztertu egin beharko da herritarrentzat zein den onuragarriena.
- E. **Zuzkidura ekipamenduak.** 1 alternatibak egun erabiltzen diren ekipamendu publikoen sarea mantentzen du, eta orain arte artifizializatu gabeko lurzoruak desklasifikatzen ditu –1.800 m<sup>2</sup>-ko zuzkidura partzela Zerrategia eremuan–. Halaber, udaletxearen erabilera aldaketa ere jasotzen du, Herri Eskolaren zabalpena bertan hartzeko, eta hura osasun etxearen eraikinaren goiko solairura eramatea, baita alondegia zuzkidura ekipamenduetan sartzeko ere. 2 alternatibak aurreko hori du abiapuntu, eta finkatu egiten ditu dagoeneko badauden ekipamenduak, eta zuzkidura erabilera osagarriak gehitzen ditu GAS DEPOSITUA eta HERRIKO PLAZA eremuetan, baita Zuloaga hirigintza eremuan ere. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, 2 alternatiba da bideragarriena, ingurumenaren ikuspuntuari dagokionez; izan ere, biek jarduketa positiboak badakartzate ere, bigarrenak jarduketa osagarriak ere txertatzen ditu, antropizatu gabeko lurzoruak okupatu gabe.



- F. **Jarduera ekonomikoak.** 1 alternatibak proposatzen du Iruntzialdea industriagunearen ondoko erriberako zenbait landa eremu industriako lurzoru urbanizagarri egitea. 2 alternatiba 1 alternatibatik abiatzen da, baina ezartzen du ez dela bidezkoa industria sektorea gehiago handitzea. Hala eta guztiz ere, lehen eta hirugarren sektoreetarako proposamenak egiten dira, horiek indartzeko, eta, horrela, tokiko sistema orekatuagoa lortzeko. Lehen sektoreari dagokionez, LUEa antolatzean balio agrologiko handieneko lurzoruak babesteaz gain, proposatu da tokiko ekoizpeneko elikagaien lehen eraldaketarako partzela bat non kokatu aztertzea. Hirugarren sektoreari dagokionez, proposatu da coworking lantoki bat non kokatu aztertzea. Hasierako dokumentu estrategikoak zehazten du alternatiba bideragarriena, ingurumenaren ikuspegitik, 2 alternatiba dela, baina, horrez gain, ondorioztatzen du 0 alternatiba ere oso bideragarria dela ingurumenari dagokionez eta koherenteena izan daitekeela udalerriaren egituraren ikuspuntutik.
- G. **Bizitoki lurzoruak.** 0 alternatiban, indarrean dagoen plangintzan aurreikusitako 106 etxebizitzaren % 11 bakarrik egikaritu dira, eta hortaz, 94 etxebizitza daude oraindik egikaritzeko. Beste bi alternatibek 44 etxebizitzako gehieneko balioa hartzen dute abiapuntu gisa, LAJen 2019ko berrikuspenean xedatutakoari jarraituz, eta egun urbanizatu gabeko hiri lurzoruak desklassifikatzen ditu, baita uholde arrisku handia duten batzuk ere (A2. Zerrategia eta A4. Kale Nagusiaren zati bat). Zehazki, 1 alternatibak trinkotu egiten du egungo hiri lurzoru, hainbat alternatiba proposatuz:
- *Elizalde gunea.* Egikaritze unitate horren azalera txikitu egiten da, egungo 1.782 m<sup>2</sup>-etatik 800 m<sup>2</sup>-ra. Bi antolamendu proposamen aurkeztu dira. 1An, proposatu da Eibarrena kalearekin lerrotatuta 12 etxebizitzako eraikin bat egitea; 1Bn, aldiz, aurreko irtenbidea alderantzikatzen da, eta eraikina 6 etxebizitzakoa izango da.
  - *Gas depositua.* Proposatu da udalerriaren erdigunea hornitzen duten propano gasaren deposituak beste leku batera mugitzea, eta haien ordean 6 etxebizitza publikoko bizitoki eraikin bat egitea.
  - *Alondegia.* Eraikin hau birgaitzea, beheko solairua zuzkidura erabileretarako erabiltzeko, eta goiko solairuak, babes publikoko 6 etxebizitza egiteko.
  - *Etxehaundi 1.* Proposatu da Jose Mari ostatuaren pareko aparkaleku gunea berritzea, lurpeko beste batekin ordeztzea, eta 12 etxebizitzako bloke bat planteatzea.
  - *Etxehaundi 2.* Egungo Etxehaundi egikaritze unitatearen barruan, proposatu da 6 etxebizitzako bizitoki eraikuntza bat egitea 28 eta 36 zenbakien artean.

Guztira, 1 alternatibak 42 etxebizitza proposatzen ditu.

2 alternatiba horren bidez, landa egoerako lurzoruak okupatu nahi dira, lurzoru urbanizagarriko etorkizuneko bizitoki garapen bultzatzeko. Honako gune hauek proposatu dira:

- *Zuloaga.* Hiri lurzoru gisa sailkatutako eta baratzeek okupatutako eremu bat urbanizatzean datza. 12 etxebizitzako, hainbat espazio libreko, gainazaleko zenbait aparkalekuko eta zuzkidura publikoetako partzela bateko jarduketak proposatu da.
- *Aztinondo.* Proposatu da 8 etxebizitzako garapen bat egitea, 2 eraikinetan (atxikiak edo solairu bakarrekoak), Aztinondo pilotalekuaren mendebaldean kokatutako lurzoru urbanizaezinean.
- *Zerrategia.* 16 etxebizitzako eraikin bat proposatu da, eta erdiguneari zerbitzua emango dioten 34 aparkaleku publiko. Zuzkidura partzela batez eta dagozkien espazio libreez gain, garapen horrek egungo hiri baratzeak lekualdatuko ditu, urbanizazio berriak haien irisgarritasuna hobetu dezan.

Guztira, alternatibak 40 etxebizitza proposatzen ditu.



Alternatiba guztiak aintzat hartuta, behin betiko antolamendua horiek bateratzearen emaitza izango da, hautatutako helburuak eta irizpideak, egindako ebaluazioak eta herritarren partaidetza prozesuan jasotako iritzia aintzat hartuta. Hala eta guztiz ere, eskaintako etxebizitza kopurua bizitoki eskariaren ondorioa izango da, eta LAJen gehieneko bizitoki kuantifikazioak ezarritako gehienekoa beteko du (44 etxebizitza).

Hasierako dokumentu estrategikoak ondorioztatzen duenez, 1 alternatibaren aldaera guztiak dakartzate ingurumenerako onurak, bizitoki eremuak ahalik eta ondoen berrantolatzea baita haien xede nagusia, dagoeneko antropizatutako hiri lurzoruaren erabilera optimizatzeke eta lurzoru berriak okupatzea saihesteko. Hori dela eta, iritzi zaio hori dela bideragarri, ingurumenari dagokionez. Eskaintzen diren aldaerak arrazoiz konbinatu behar dira, udalerraren beharren eta LAJek ezarritako arauen arabera.

**H. Zerbitzu azpiegiturak.** 1 alternatibak proposatzen du ur zikinen saneamendu sarearen adar posibleak aztertzea eta planifikatzea, baserri taldeak dauden goiko guneei zerbitzua emateko, edo autoarazketarako bestelako sistemak, osterantzean. Halaber, proposatzen du kokapen berriak aztertzea energia berriztagarria ekoizteko sistemak ezartzeko, eta sistema horiek industria eta bizitoki eraikinen estalkietan ezartzea erraztea, arauketa malgutuz, aukera hori errazago egiteko. Telekomunikazioei dagokienez, proposatu da egungo sareen hobekuntza planifikatzea orain arte etxetik edozein lan egiteko moduko konexio efizientea bermatzen duen estaldura ez duten guneean.

Hasierako dokumentu estrategikoak ondorioztatzen du 1 alternatiba dela bideragarriena ingurumenaren ikuspegitik, Lizartzako herritarren beharrei erantzuten dieten jarduketak dakartzalako, baita udalerraren ingurumenerako bestelako neurri onuragarriak ere, edo bizitokien eta zuzkidura publikoen alternatibek baldintzatutakoak.

## 2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Behin Lizartzako Udalaren eskaera jasotakoan, Ingurumen Administrazioiko Zuzendaritzak ukitutako administrazioei eta publiko interesdunari egin beharreko kontsulten izapidea egin zuen, 21/ Legearen 19. artikuluan eta 10/2021 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoa. Fase horretan, honako entitate eta erakunde hauei egin zaie kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekeko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- IHOBE.
- EEE.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.



- Eusko Jaurlaritzako Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
- Tolosako Udala.
- Oresako Udala.
- Leaburuko Udala.
- Altzoko Udala.
- GAZTELUKO UDALA
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Tolomendi
- Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea
- Tolosaldea Garatzen.
- Eguzki talde ekologista.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.

Halaber, aurrerakina eta hasierako dokumentu estrategikoa eskura egon dira GFako Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzaren Interneteko web orrian, ([www.gipuzkoaingurumena.eus](http://www.gipuzkoaingurumena.eus)), herritar guztiek bidezkoz jotako ingurumen arloko ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Erantzunak bidaltzeko epea bete ondoren, hauek izan dira erantzuna bidali dutenak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak azaldu du Oztopoak Iragazkortzeko Plan Gidaria dagoela, bertan aurreikusten dela ibaietako hainbat arrain espezieen migrazio mugimenduak zailtzen dituzten presetan eta presa txikietan esku hartzea, eta eraisketak lehenesten dituela, bestelako esku-hartzeen aurretik. Orobat, jakinarazi du 9/2021 Legearen, Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzkoaren, 3.2. artikulua, xedatzen duela natura ondarea kontserbatzea gailendu egin behar zaiola lurralde eta hirigintza antolamenduari eta kultur ondareari. Hala eta guztiz ere, egiaztatu du HAPOaren aurrerakinak proposatzen duela kultur ondare gisa babestea ibaiari zuzenean eragiten dioten zenbait elementu, esaterako, ibilguan egitura hidraulikoak dituzten errotak edo burdinolak edo haien erriberetan eraikitako bestelako eraikuntza batzuk. Horregatik, Lizartzako Udalari eskatu dio ingurumenaren aldagaia kontuan har dezala ondare interesa duten elementuen katalogoan sartu beharreko egiturak aztertzean.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Zuzendaritzak Kultura Departamentuaren datu basean jasotako ondare elementuen fitxak bidali ditu, aintzat hartu daitezkeen arkitektura eta arkeologia ondareko elementuak aztertzean. Horrez gain, jakinarazi du HAPOaren aurrerakina eta HAPOa bera egokitu egin beharko lirakeela 14/2023 Legean, azaroaren 30ekoan, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoan, ezarritako babes mailalara. Orobat, HAPOak jaso egin beharko ditu Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 1997ko abenduaren 19ko Ebazpenean ezarritako ustezko zona arkeologikoak. Gainera, Kultura Zuzendaritzaren txostenean Kultur Ondarearen Ondarea Zentroak egindako babes ertainerako eta tokiko babeserako proposatutako elementuen zerrenda jasotzen da. Horiek ondareen katalogoan jaso beharko dira, eta dagoeneko ez daudenak, handik ezabatu. Halaber, txostenean jasota dago ondare historikoaren zerbitzuak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari babesteko eskatutako baserrien zerrenda.

HAPOak araudi orokorrean eta eremu/sektore bakoitzeko partikularrean baimendutako esku-hartzeei dagokienez, ezingo dute babes araudian eta katalogoan ezarritakoaren aurka egin. Orobat, oinarrizko babeseko elementuetan definitu beharko da zeintzuk diren katalogoan sartzea ekarri duten kultura balioak dituzten higiezin elementuak. Ildo horretan, gogorarazi da babestutako ondasunak ezin direla osorik edo partez eraitsi, 6/2019 Legean, Euskal Kultura Ondareari buruzkoan, xedatutakoaren arabera. HAPOaren katalogoa osatzeko,

gomendatu da elementu bakoitzaren banakako fitxa bat egitea, haren kokapena, deskribapen orokorra, ondare intereseko balioak, argazkiak, babes araubidea eta kontserbazio egoera jasotzen dituen. Horrez gain, 6/2019 Legean, Euskal Kultura Ondarearenean, xedatutakoari jarraituz, kutsadura bisuala edo akustikoa sortzen duten elementuak kontrolatzeko edo desagerrarazteko neurriak txertatu beharko dira.

- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du araudi bat edo babes araubide bat ezarri behar dela katalogoan jasotako elementu guztietarako, hala arkitekturakoetarako nola arkeologiakoetarako, bai izendatuetarako bai deklaratu gabeetarako ere. Izendatutako arkitektura elementuei dagokien zerrendarekin batera, 7. Etxeaurdi Baserria izeneko elementua era sartu beharko da, babes ertaina baitu 2006ko apirilaren 10eko Aginduaren ondorioz. Halaber, EAEko erregistroan inskribatzeko proposatutako arkitektura elementuei dagokien zerrendaren barruan, “6/2019 Legearen ondoretarako oinarrizko babesaren duten kultur ondasunak” izena eduki beharko duenean, *Asura baserria, babes bereziko*, sartu beharko da. VI. 9.2. *Oinarrizko babeseko higiezinak* izeneko zerrendak *udal babeseko kultur ondasunak* izena hartu beharko du. Horrez gain, zona eta multzo arkeologikoen inguruko apartatuen idazketa aldatu beharko da, baita ustezko zona arkeologikoei buruzkoena ere, garbi uzteko elementu guztiak izendatuta daudela, eta, aldi berean, proposatu nahi diren zona arkeologikoen zerrenda independenteak sortzeko (Santa Katalina parrokia). Gainera, iritzi dio komenigarria dela HAPOa idazteko geroko faseetan zerrenda guztietako elementuen tituluek eta zerrendek lotura izatea bata bestearekin, hala dokumentazio grafikoan nola idatzizkoan, eta elementu bakoitzaren banakako fitxak jasotzea, babes araudi partikularra zehazten dutenak.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzak onetsitako babes zibileko lurralde planetan eta plan berezietan Lizartzako udalerrirako jasotako babes zibileko arriskuen berri eman du. Honako hauek dira:
  - *Uholde arriskuak*. Araxes ibaiaren ibilguztari lotutako uholde arriskuak. Hiri lurzorurako bi alternatibetan, 1 alternatibak uholde arriskuaren orbanak ukitutako hiru eremu desklasifikatzen ditu; hortaz, arriskua ez da handitzen, baina 2 alternatiban ere uholde arriskua duten guneak desklasifikatzen diren arren, urbanizagarri gisa sailkatzen ditu 6 eremu, batzuk uholde arriskua duten guneetan kokatuak, eta, horrenbestez, handituko luke arriskua. Bete egin beharko da Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzearen Plan Sektorialean xedatutakoa, eta une oro saihestu beharko da azterlanaren xede eremuko uholde arriskua handitzea, eta instalazioak 500 urtetako itzulera aldiko kotatik gorako kotetan jarri beharko dira. Halaber, administrazio hidraulikoaren baimenean ezarritakoa bete beharko da. Horrez gain, jakinarazi du eremuko prezipitazioaren isomaximoak 250 mm/egun eta 275 mm/egun direla 500 urteko itzultze aldirako, eta hori aintzat hartuko da drainatze lanak diseinatzean.
  - *Arrisku sismikoa*. Udalerria VI intentsitate gunean dago, Larrialdi Plan Sismikoaren arabera. Horrenbestez, salbuetsita dago larrialdi sismikoko plana egitetik. Dena den, eraikuntza berrietan kontuan hartu beharko da 997/2002 Errege Dekretuak, irailaren 27koak, onetsitako Eraikuntza Sismoerresistentearen Araua.
  - *Basoko suteen arriskua*. Jakinarazi du hirigintzako plangintzara begira aintzat hartu beharko direla EAEko Basoko Suteen Arriskuagatik Larrialdiko Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinean jasotako baldintzatzaileak, basoko suteen arrisku handiko guneetako edo hiri eta basoaren eta hiriaren lotura guneetako erabileretarako Autobabes Plana egiteko nahitaezko tasunari dagokionez, baita kanpatzeko instalazioei dagokienez ere.
  - *Arrisku teknologikoa*. *Salgai arriskutsuen garraioa*. Lizartzan, salgai arriskutsuek zirkula dezaketen komunikazio bidea Gi-2135 errepidea da, arrisku kartografiatu oso baxua duena.





- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Oreka Berdearen Departamentuak jakinarazi du udalak aurkeztutako dokumentuetan ebaluatu egiten dela proposatu diren lurzoru urbanizaezina antolatzeko alternatibek ingurumenean izango duten inpaktua, baina ez dela ebaluatzen nekazaritzaren sektoreko inpaktua, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren 10e artikuluan xedatzen denari jarraituz. Ondorioz, HAPOak balio estrategiko handiko lurzoruen eta onura publikoko mendien azalera duten eragina definitu beharko du, antolamenduaren kategorien arabera, baita lurzoruaren eta haien eraikinen eta azpiegituren galerak jasan dituzten 4 ustiatzeen bideragarritasun ekonomikoaren inpaktua ere.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzak, nahiz eta oso positibotzat jotzen dituen lehen sektorea sustatzeari buruz planteatutako helburuak eta balio estrategiko handiko lurzoruen azalera handitzea, zenbait ñabardura egin ditu. Hain zuzen, iritzi dio informazio gehigarria behar dela Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSarekin alderatutako balio estrategiko handiko kategoria zabaltzen den guneak zedarrizteko kontuan hartutako irizpideen inguruan. Halaber, egiaztatu du Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren baso kategoria hainbat kategoriatan banatuta dagoela LUEaren antolamenduan: *Babes berezia*, *Ingurumen hobekuntza* eta *Basoa*; eta *Ingurumen hobekuntza* eta *Babes berezia* kategorietan sartutako azalera batzuk ustiatzen ari diren baso plantazioekin bat datozela. Horrek, bere ikuspegitik, zalantzak dakartza antolamendu planek proposatutako kategorizazioaren eta ukitutako basoen eta plantazioen kudeaketaren bateragarritasunari dagokionez. Iritzi dio, hain zuzen, plan orokor batek ez lukeela jaso beharko sektoreko jarduna arautzen duen arauzko xedapenik, ezta sektoreko politikak planteatzean esku hartzen duenik ere, horiek garatzea sektoreko administrazio eskudunei baitagokie.

Horrez gain, *Babes berezia* kategoriarri dagokionez, berrikustea iradoki da, kategoria hori zedarrizteko Tolosaldeko LPPak darabiltzan irizpideen arabera babestu nahi diren balioen arabera zedarrizteko. Hirigintzako araudiari dagokionez, aldiz, gogora ekarri du aintzat hartu beharko direla Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren 10. artikuluan adierazitako loturak, hau da, berariaz jaso beharko dela Balio Estrategiko Handiko LUEko guneei lotutako araudia, baita *Onura publikoko mendien eta mendi babesleen* arauzko izaera ere. Orobat, aintzat hartu beharko ditu LPSaren honako kapitulu hauen edukiak ere: III. kapitulua (*lurzoruaren erabileren eta jardueren definizioa*), VI. kapitulua (*erabileren onargarritasun eta debekatutako argipena, eta aurretik zeuden nukleotan bermatutako hazkundeetarako baldintzak ezartzea*), eta VII. kapitulua (*Baldintzatzaile gainjarriari aplikatu beharreko arauak*). Gainera, kontuan hartu beharko da LPSaren Jarraibide Orokorren II. kapituluko 11., 12. eta 13. artikuluetako edukia ere, zeinak LUEan nekazaritzako eraikin berriak egiteko baldintzak, nekazaritzako ustiatzei lotutako etxebizitza isolatuaren eta abeltzaintzako instalazio intentsiboen baldintzak arautzen baitituzte, hurrenez hurren. Nekazaritzako lurra okupatzeari dagokionez, planteamenduaren nekazaritzako sektoreko eragina murrizten du ingurumenaren ikuspegitik bizitokien antolamenduen I. alternatiba bideragarriena dela jotzeak. Nolanahi ere, jarduera ekonomikoak antolatzeko alternatibei dagokienez, 2 alternatiba garatzeak balio estrategiko handiko lurzoruak okupatzea ekarriko luke.

Halaber, espazio libreei buruzko alternatibek halakotzat zedarrizten dituzte nekazaritzako erabilerak dituzten lurzoruen azalera, eta haiei lotutako ustiatzei eragin diezaiekete. Ondorioz, gomendatzen du planteamenduak nekazaritzako lurzoruetan eragin gutxien dakarten alternatibak aldezte, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzaren txostenaren 2.3. apartatuan jasotako jarraibideak eta orientabideak aintzat hartuta. Nolanahi ere, beharrezkoa izango da Nekazaritzako Sektoreko Eraginaren Ebaluazioko protokoloa aplikatzea, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren 10.e. artikuluan ezarritakoa, eta, haren emaitzaren arabera, neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileak zehaztea. Gainera, nekazaritzaren arloko foru organo eskudunen txostena beharko da, 17/2008 Legearen, abenduaren 23koaren, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoaren, 16. artikulua xedatzen duen moduan. Azkenik, gomendatzen du nekazaritza jarduerak mantentzera bideratutako jarduketa programak txertatzea, eta abandonatutako edo desagertzeko arriskuan dauden lursailak kudeatzekoak,



baita txostenaren lurzorua okupatzeari buruzko 2.3. apartatuan jasotako helburuekin eta jarraibideekin lotutako jarraipen sistemak ere.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak hainbat jasangarritasun irizpide definitzen ditu, HAPOan kontuan hartu beharko diren eta biodibertsitatean eragiten dutenak. Orobat, ingurumen helburuen hainbat adierazle azaltzen ditu, eta haientzat honako balio hauek kalkulatu beharko liratekeela: haien egungo balioa, ingurumen helburuak betetzeko lortu beharrekoa (arrakasta irizpidea), eta, azkenik, proposatutako plangintza aplikatuz hartuko lukeen balio zenbatetsia. Zentzuzkoa denez, balio zenbatetsiak arrakasta irizpidea betetzen ez badu, plana birformulatu egin beharko da, edo justifikazio espezifikoa aurkeztu beharko da. Horrez gain, LUEaren antolamenduaren proposamenari dagokionez, 2 alternatiba, hasierako dokumentu estrategikoaren arabera bideragarria den bakarra, egokitzat jo da. Gogorarazi da Batasunaren intereseko habitatak (ez lehentasunezkoak soilik) *Babes berezia* kategorian sartu beharko liratekeela, nahiz eta HIC 6510 habitata balio estrategiko handiko nekazaritzako eta abeltzaintzako kategorian sar daitekeen. Hiri ereduari eta lurzorua okupatzeari dagokionez, aurrerakinak ez du lurzoruaren okupazioaren aldaketarik planteatzen, aztertutako alternatibak indarreko plangintzaren antzekoak baitira. Onuragarritzat jo da Araxes ibaiko KBEarekin mugakideak direlako A2. Zerrategi eta A4.3. Etxeandua eremu osoak desklasifikatzeko proposamena. Ildo horretan, Zerrategiko ibai parkearen proposamenak bermatu beharko du ez dela KBEaren kontserbazio helburuetan eragin nabarmenik sortzen ez dela, ez eraikuntza proiektutik ez aisiako presiotik eratorritakorik. Bestelakoan, aurrerakinean jasotako proposamenen zehaztapen maila apala dela eta, ezin izan da egin natura ondarean sor daitezkeen eraginaren lehen balorazioa.

Horrez gain, HAPOa eta IAEa egiteko, plangintza xehakatuaren garapenarekin edo, hala badagokio, hirigintza proiektuenarekin batera, lehengoratzeko plan bat idatzi eta egikaritu beharko da, txostenean zehaztutako zenbait irizpideri jarraituz. Gainera, HAPOaren araudian jaso beharko da lehengoratzeko plan horren beharra dagoela. Intereseko landaredia kentzea ere justifikatu egin beharko da, eta, edozein kasutan ere, konpentsatu egin beharko da, lurraldean/udalerrian narriatutako beste gune batean ukitutakoaren azalera berdina edo handiagoa lehengoratuz. Horrez gain, interes bereziko guneei eta fauna edo flora espezie mehatxatuak babesteko edo berreskuratzeko guneei eragitea saihestu beharko da, garapen berriak beste nonbait kokatzen saiatuta eta/edo neurri prebentiboak eta zuzentzaileak hartuta. Azkenik, garapen berrien proposamenekin batera esku-hartzea paisaian txertatzeko neurriak proposatu beharko dira.

- URAK, uholde arriskuari lotuta, proposatu du Araxes ibaiaren ezker ertzean kokatutako hiri lurzorua desklasifikatzea, lehentasunezko fluxu eremuetan (LFE) kokatutako proposamenetan. Dena den, lurzoru horietan Plan Hidrologikoaren 43, artikuluan xedatutako erabilere mugari jarraituko zaie. Horrez gain, LFEtik kanpoko uholde arriskua duen gainerako gunean kokatutako proposamenei dagokienez, dagoen arriskua kontuan hartuta diseinatutako dira, eta bizitoki erabilera 500 urteko itzulera aldiko uholdearen kotaren gainetik kokatutako dira. *A priori* iritzi dio, orobat, udaletxeak Herri Eskolaren zabalpena hartzeko proposatutako erabilera aldaketa ez dela bateragarria Plan Hidrologikoarekin. Uholde arriskuaren arloko irizpide orokor batzuk ere gaineratu ditu, eta ezarri du uholde arriskuarekin lotutako neurriak HAPOaren araudi orokorrean txertatu beharko direla, baita ukitutako eremuen hirigintza fitxetan ere.

Halaber, jabari publiko hidraulikoa babesteari eta Araxes ibaiaren ezker ertzeko oinezkoentzako bideari, Insaluseko instalazioak eta herrigunea lotzen dituenari eta iparralderantz industriagunera arte jarraitzen duenari, dagokienez, gogorarazi du ibilguen zortasun gunea jarduketarik gabe utzi beharko dela, eta errespetatu egin beharko direla aurretik dagoen erriberako landaredia eta EAEko Ibaien eta Erreken LPSak ezarritako urbanizaziorako eta eraikinetarako atzeratzeak. Hornidurari eta saneamenduari dagokionez, gogora ekarri du HAPOa izapidetzeko hurrengo faseetan ur eskari berrien eta garapen berrien ondoriozko hondakin uren karga berriak zenbatetsi beharko direla eta Gipuzkoako



Uren Kontsortzioaren ziurtagiri bat lortu beharko dela, egun dauden hornidura eta saneamendu azpiegiturek garapen berriei zerbitzu egokia eman diezaieketela frogatzeko. Gainera, egungo eta etorkizuneko hornidura eta saneamendu sare guztiak irudikatu beharko dira. Azkenik, gogorazi du jabari publiko hidraulikoaren babes eremuaren barruan egingo diren jarduketak guztiek beharko dutela Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena, Urak izapidetuko duena.

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak ezarri du Plan Orokorrek bere zehaztapenek dakarten *baliabide hidrikoen eskariaren* azterketa jaso beharko du, eta haien jatorria justifikatu beharko du; hala badagokio, baliabide horiek babesten dituzten emakida administratiboak edo ur eskubideak adierazi beharko ditu, Uren Legearen Testu Bateginaren 25.4. artikulua aipatutako zenbatespena posible egiteko. Halaber, jakinarazi du ur horniduraren zerbitzuaren entitate kudeatzailearen ziurtagiri bat aurkez daitekeela, bermatzen duena sareak badituela nahiko baliabide ura hornitzeko beharrei erantzuteko. Gainera, aipatu du plan orokorrak aztertu egin beharko dituela haren zehaztapenek dakartzaten saneamendu eta arazketa beharrak, eta araztegiaren entitate kudeatzailearen justifikazio bat aurkeztu beharko duela, frogatzeko HUAEEK ingurune hartzailearen uren kalitate arauak bete ahalko dituela, eta, gainera, proposatutako garapenen hondakin urak nahiko bermerekin hartu ahalko dituela. Orobat, euri urei dagokienez, drainatzeko hiri eta industria azpiegituren bitartez jasotzen direnean eta jabari publiko hidraulikoa kutsa dezaketenean, isurketa baimenaren prozedura egin beharko dute administrazio hidraulikoan. Gaineratu du, dena den, hirigintzako garapen berriek okupazio iragazgaitzaren zenbatekoa ahal beste txikitu beharko dutela, behar-beharrezkoa denetara, eta drainatze jasangarriko sistemak txertatu beharko dituztela.

Horrez gain, udalerrriaren uholde arriskuari dagokienez, jakinarazi du HAPOak lur sailkapen ezberdinetarako jasotako proposamenak bateragarria izan beharko duela Plan Hidrologikoaren Araudian, bereziki 37. eta 45. artikuluen artean, ezartzen zaizkien mugekin. Ildo horretan, iritzi dio aurkeztutakoen arteko aukerarik onena dela Lizartzako herriguneko Araxes ibaiaren ezker ertzean kokatutako hiri lurzoruak desklasifikatzea, lehentasunezko fluxuko eremuek erabat ukitzen dituztenak. Zuzkidura erabileretarako alternatibei dagokienez, proposatu du bizitoki eraikinen beheko solairuetan kokatzea, 43.d) eta 45.3. artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta. Nolanahi ere, garapen eremuetako uholde arriskuaren eraginak jasota utzi beharko dira dagozkion hirigintza fitxaren sektoreko baldintzatzaile gainjarrien apartatuan. Azkenik, jakinarazi du eremuaren etorkizuneko antolamenduan kontuan hartu beharko dela erriberako baldintza naturalak eta landaredia kontserbatu beharra dagoela. Halaber, irekita utzi beharko da zortasun gunea, herritarren oinezko pasaerarako eta zaintza zerbitzuak egiteko, eta ibilguen polizia gunean eta jabari publiko hidraulikoan beste edozein obra edo lanek aurreko administrazio baimena beharko dute, edo, bestela, erantzukizunpeko adierazpena, arroko organismoaren aurrean.

Irismen dokumentu hau igorri ondoren erantzunen bat jasotzen bada, hura Lizartzako Udalari bidaliko zaio ahal bezain laster, kontuan hartu dadin HAPOa eta ingurumen azterketa estrategikoa egitean.

### **3.- INGURUMEN ARLOKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK**

Hiri Antolaketako Plan Orokorrek, udal lurzoruaren antolaketa osoaren oinarrizko tresna denez, aukera eman beharko du, ez soilik ingurumen alderdiak modu egokian txertatu eta hirigintzako eta azpiegiturarako jarduketetatik eratorritako ingurumen inpaktuak murrizteko, baita udalerrriaren ingurumen kalitatea hobetzeko ere.



A. HAPOaren ingurumen helburuak gutxienez honako jasangarritasunaren helburu eta irizpideetan oinarrituta egon beharko dute:

- Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gaintik; eta horretarako, ingurumen alderdiei dagokien garrantzia ematea HAPO egiterakoan, eta bertan ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduketak txertatzea.
- Saihetsezinak direla ondorioztatu ostean, egiaz gertatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea. Honako hauek zehaztuta gelditu behar dute plangintza tresnan:
  - Konpentsazio modua, berreskuratzea komeni den gune narriatuetan eta definitutako edo definitu beharreko tokiko korridore ekologikoen sarean oinarritutako lehentasunak definitzen dituen azterlan batetik abiatuta.
  - Konpentsazio ekintzak jasoko dituzten lursailak eskuratzea lotuta geratu beharko du sailkatutako den lurzoruarekin, adibidez, sistema orokor atxiki baten edo zuzkidura publikoak lortzeko jarduketa baten bidez.
  - Sektore berriaren urbanizazio gastu gisa gehituko da konpentsazio neurrien kostua, eta horiek egikarrituta egon beharko dute eraikuntza lizentziak eman aurretik.
- Energia jasangarritasunetik eratorritako betekizunak txertatzea lurralde antolamenduan eta hirigintzan. Ildo horretan, hirigintzako plangintzak energiaren autohorniketa erraztuko du, eta energia iturri berriztagarrietatik abiatuta energia lortzeko irtenbideak ezartzea lehenetsiko du, baita hiriko bero sareen bitartez energia sortzeko eta banatzeko sistema zentralizatuak garatzea ere. Orobat, dagoeneko badauden eraikuntzen eta espazio urbanizatuaren energia efizientzia hobetzea sustatuko du, eta irizpide bioklimatikoak erabiliko ditu etorkizuneko eraikinen eta espazio publikoen plangintzan, proiektuan eta egikaritzean, baita energia kontsumoa txikitzeko sistema pasiboak eta aktiboak erabiltzea ere.
- Lurzoruaren erabilerak esleitzerakoan, natur eta nekazaritza baliabideen kalitatea eta urrakortasuna kontuan hartzea, eremu batzuen eta besteen ingurumen kalitatea eta aurreikusitako erabilerak hartzeko duten gaitasuna bezalaxe.
- Lurzoruaren artifizializazioa eta hazkunde demografikoa elkarrengandik askatzea. Lurzoru sailkatuen okupazioa agortzea lurzoru gehiago sailkatu beharrean, eta lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitzea, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzoru bakarrik mugatuz. Lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitzea, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzoru bakarrik mugatuz. Lurzoru desklasifikatzea eta lurzoru urbanizaezin izatera itzultzea, haien hirigintzako garapena ez bada bidezkoa indarreko inguruabar sozioekonomikoei eta jasangarritasuneko irizpideei jarraituz.
- Gerta litezkeen hiri garapenak eta azpiegiturak aurkitzea, eta honako baldintza hauek ziurtatuko diren moduan antolatzea:
  - Baliabide natural baliotsuetan duten eragina ahal beste murriztea (landaredi autoktonoa, egoera naturalean dauden ibilguak, balio agrologiko handiko lurzoruak eta abar).
  - Arrisku naturalak prebenitzea (uholde arriskua, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak eta abar):
  - Ur hornidurako sarea eta saneamendu sarea, garapen horien zerbitzu egokia bermatuko den moduan erabiltzeko aukera izatea.
  - Efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak ezartzea.
- Dentsitate ertain edo handia duten eta erabilerak behar bezala uztartuak dituzten hirigune trinko eta anitzak lehenetsiko dira, dentsitate txiki edo oso txikiko egoitza-garapen berriak baztertuz. Era berean, etxebizitza bakanaren edo atxikiaren tipologia ere baztertu egingo



da, hiri eredu bakan eta zehaztugabea bultzatzen baitute; gainera, tipologia horrek lur asko okupatzen du eta energia nahiz material asko kontsumitzen du.

- “Etxebizitza hutsak” okupatzea eta ondare eraikia birgaitzea sustatzea, eta, horrela eraikuntza berriak eraiki daitezen saihestea.
- Oraingo hiri bilbearen optimizazio funtzionala eta birmoldaketa bultzatzea, betiere bilbe horiek birgaituz, berregituratuz edota berrituz, eta abandonatutako eremuak berreskuratzea, lurzorua nahiz baliabideak optimizatzeko estrategia gisa.
- Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, erabilera edo jarduera guztiak behar bezala integratuta eta espazioan kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetzeko, mugikortasun premia handirik sor ez dadin.
- Mugikortasun arrazionalagoa eta jasangarriagoa sustatzea, oinez, bizikletaz eta garraio kolektiboz gehiago mugitzera bultzatzeko eta erregai alternatiboak darabiltzaten garraio motak sustatzeko.
- Biodibertsitatearen elementu berezietan eragina saihestea (bertako landaredia, espezie mehatxatuen habitatak eta abar) eta ondare naturalaren egoera globala eta ingurumen zerbitzuak emateko gaitasuna mantentzea edo hobetzea.
- Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu egokia ezartzea, landa ingurua babesteko, eta oreka bilatzea haren garapen ekonomikoaren, ekosisteman duen zereginaren (lehengaien hornidura, ingurunea babestea) eta ingurumen eta paisaia kalitatearen baldintza egokien artean.
- Espazio eta elementu naturalen kalitatea eta funtzio aniztasuna kontserbatzea eta lehengoratzeko, balio ekologiko handiko guneen arteko konektagarritasuna sustatzeko udalerraren azpiegitura berdearen antolamendu eta kudeaketa egokien bitartez, ondare naturalaren egoera orokorra eta zerbitzu ekosistemikoak emateko gaitasuna hobetze aldera.
- Paisaia faktorea plangintzan txertatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoari jarraituz babestu, kudeatu eta antolatu dadin sustatuz.
- Baliabideen balantzean (ura, energia eta materialak) ondorio kaltegarriak murriztea, sortutako hondakinak eta kutsatzaileak bezalaxe, bai eraikuntzan (eraikinak, egiturak, urbanizatze lanak, eta abar) eta bai funtzionamendu fasean; eta zikloak ixte aldera jotzea.
- Ur baliabideak eta ur ingurunea –lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta lehengoratzeko, Uraren Esparru Zuzentaruaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horri jarraituz, uren arloan gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarritako distantziak eta zortasunak errespetatuko dira, eta egungo eta etorkizuneko isurketak egoki tratatuko direla bermatuko da.

B. Gainera, Lizartzako HAPOa egitean, kontuan hartuko dira honako arau eta dokumentu hauetan jasotako jasangarritasun irizpideak eta printzipioak:

- Nazio Batuen 2030 Agenda.
- Europar Batasunaren Ingurumenaren arloko Ekintza Programa Orokorra, 2030era artekoa.
- Europako Itun Berdea.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko Esparru Programa 2030.
- Lurzorua Babesteko Euskadiko Estrategia 2030.
- Euskadiko Baso Plangintza (1994-2030).



- Euskal Autonomia Erkidegoko Biodibertsitatearen Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategia 2050.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030.
- Bultzatu 2050 Hiri Agenda.
- Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050.
- Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030.
- Klima Aldaketaren aurka borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, urriaren 30ekoaren, Lurraren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bategina onartzen duenaren, 3. eta 20. artikuluen.
- 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 3. artikulua.
- 7/2021 Legearen, maiatzaren 20koaren, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoaren 2. artikulua.
- 42/2007 Legearen, abenduaren 13koaren, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoaren, 2. artikulua eta 9/2021 Legearen, azaroaren 25koaren, Euskadiko Natur Ondarea Kontserbatzeari buruzkoaren, 3. artikulua.
- 1/2006 Legearen, ekainaren 23koaren, Urei buruzkoaren, 3. artikulua.
- 4/2015 Legearen, ekainaren 25ekoaren, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzekoaren, 4. artikulua.
- 17/2008 Legearen, abenduaren 23koaren, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoaren, 6. artikulua.
- 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenaren, 1. eta 2. artikulua.
- 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 5. eta 6. artikulua.
- 90/2014 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoaren, 2. artikulua.
- Azpiegitura Berdearen eta Konektagarritasun eta Lehengoratzeko Ekologikoaren Estrategia Nazionalaren 2.3.8. apartatua.

C. Honako hauek dira irismen dokumentu hau idaztean kontuan hartu diren ingurumen alorreko arau nagusiak, Lizartzako HAPOa egitean kontuan hartu beharrekoak:

### **Europako araudia**

- 92/43/EEE, Kontseiluarena, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, Ur Politiken Alorrean Batasun Mailako Esparrua ezartzekoa.
- 2002/49/EE Zuzentaraua, Zaratari buruzkoa.



## **Estatuko araudia**

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa.
- 2015eko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurraren eta Hiri Berritzearen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiei buruzkoa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatzeko akustikoari, kalitate helburuei eta soinu igorpenei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Ur Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta berau garatzeko erregelamenduak.
- 35/2023 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren 2022-2027 Plan Hidrologikoa onesten duena.
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, besteak beste, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren uholde arriskua kudeatzeko planaren berrikuspina eta eguneraketa onesten duena.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Ekonomia Zirkularerako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzkoa.
- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa.

## **Autonomia erkidegoko araudia**

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Jarraibideak behin betiko onesten dituena.
- 64/2020 Dekretuan, maiatzaren 19koa, Tolosako Eremu Funtzionalaren (Tolosaldea) Lurralde Plan Partziala behin betiko onesten duena.
- 177/2014 Dekretua, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Partziala behin betiko onestekoa.
- 415/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzen Lurraldearen Arloko Plana (Kantauriar isurialdea) eta haren geroko aldaketa behin betiko onesten duena (449/2013 Dekretua).
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 4/2015 Legea, Lurzorua Ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa Garbitzeko, eta berau garatzeko dekretua.



- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, eta haren geroko aldaketak.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25koa, Euskadiko Natur Ondarea Kontserbatzeari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.
- 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Landa Garapeneko.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa.

#### **Gipuzkoako araudia**

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiei buruzkoa.
- 2/2013 Foru Araua, ekainaren 10koa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena.

#### **4.- INGURUMEN EBALUAZIOAREN XEDE DEN ESPARRU GEOGRAFIKOA. LIZARTZAKO UDAL MUGARTEAREN BALIABIDE ETA EREMU NABARMENAK.**

Ebaluatuko den esparru geografikoak Planean aurreikusitako jarduerak eragingo dituzten ondorio guztiak ebaluatzeko behar bestekoa izan beharko du, hirigintzako jarduerak ez ezik araudi zehaztapenek ingurumenean dituzten eraginak ere kontuan hartuta. Oro har, Lizartzako udal mugartea hartuko du, baina alderdi batzuek udal mugarteaz gaindiko lursail batek izan ditzaketen eraginen azterketa beharko dute, esaterako, paisaia sortuko den eragina aztertzean.

Ingurumen ebaluazio hori xehetasun maila handiagoz egingo da antolamenduko alternatiba batzuek eta besteek eragin handiko jarduketak aurreikusten dituzten eremuetan; esate baterako, hirigintza garapenak egitea aurreikusi denetan.

Ingurumen Administrazioiko Zuzendaritzan dagoen informazio bibliografiko eta kartografiko kontsultatu eta beste administrazio batzuetatik lortutako erantzunak kontuan hartu ondoren, ingurumen interes berezia duten honako baliabide eta espazio hauek hauteman dira Lizartzako udal mugartean:

- A. **Bertako zuhaiztiak eta Batasunaren intereseko habitatak** Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, udal mugarteko egungo landarediaren % 36,94 baso naturalek osatzen dute, lurraldeko landaredi potentzialarekin bat datozenek, hau da, kantauriar artadia, pagadi azidofiloa, pagadi kaltzikola edo eurotrofoa, harizti azidofiloa eta hariztia-baso misto





atlantikoa, eta, ibaien ibilguetatik gertu, kantauriar haltzadia. Bigarren landaredi mota ugarienak baso plantazioak dira, % 24 hartzen baitute, eta atzetik dituzte sastrakadiak (% 19,8) eta belardiak (% 18,5). Batasunaren intereseko habitatei dagokienez, udal mugartearen % 29,15 hartzen dute, eta horietatik ugarienak dira 9340 kodekoa (*Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak), % 10,77 hartzen duena; 6510 kodekoa (*Altitude txikiko segarako belardiak*), % 8,06 hartzen duena; eta 9120 kodekoa (*Ilex* eta *batzuetan Taxus oihanpea duten pagadi azidofiloak*), % 6,44 hartzen duena. Gainerakoen azalerak oso txikiak dira (% 1 inguru edo gutxiago), eta, besteak beste, lehentasunezko honako habitat hauek hartzen dituzte barnean: 91E0 *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak, % 1,03; eta 6210 *Belardi lehor erdinaturalak* eta *kare substratu gaineko sastrakadi faziesak*, % 0,65.

Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagokion aurrerakinako 2 alternatiba da planteatu diren hiruetatik osatuena eta zehaztuena; baso autoktono batzuk babesten dira, baita Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak eta Tolosaldeko LPPan ezarritako natura intereseko eremuak ere, *babes bereziaren* kategorian sartzen baitira. Gainera, Batasunaren intereseko habitaten babes gehigarri bat ere ezartzen da, Batasunaren intereseko habitata baldintzatzaile gainjarria erabiliz, zeinak Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatei zein lehentasunezkoak ez direnei eragiten baitie. Batasunaren intereseko lehentasunezko habitaten babes bikoitza alferrekotzat jo da; izan ere, babesa indartzen ez duen arren, zaildu egiten du kontuan hartu beharreko erabilera jarraibideak aztertzea gune jakin batean. Hortaz, nahikoa da baso autoktono guztiak *Babes berezia* kategorian sartzea, baita Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak ere, eta formazio horietarako baldintzatzaile gainjarri espezifiko bat definitzeak dakarren babes gehigarria kentzea.

Horrez gain, aurrerakinak berak ezartzen dituen irizpideekin bat, ahal den heinean, intereseko landaredia babesteko kontserbazio aktiboko neurriak ezarriko dira, adibidez, balio ekologiko handiko eta titulartasun pribatuko basoak lurzoruaren udal ondarean txertatzea edo lurraldea zaintzeko akordioak egitea, haien kontserbazioa bermatzeko eta masa helduagoak bihurtzeko.

Nolanahi ere, azkenik hautatutako lurzoruaren okupazioaren alternatibaren alde egitean, intereseko landaredi autoktonoari sortutako eragina ahal beste txikitzea lehenetsiko da. Halaber, lurzoru urbanizagarrietan eta, are gehiago, hiri lurzoruaren azkenik egoki daitezkeen zuhaitzietan dagokienez, prebentzio neurri eta neurri zuzentzaile egokiak ezarri beharko dira, esaterako, garapen guneen espazio libreetan txertatzea eta behar besteko atzeratzeak definitzea, eta eragina jasan dezakeen Araxes ibaiarekiko erribera mugakidearen landarediaren kasuan ibaiaren konektagarritasun ekologikoa berreskuratzea.

- B. Natura 2000 Sarea eta natura intereseko espazioak.** Lizartzako udal mugartean LAJetan jasotako natura intereseko eremu bat dago: Araxes-Jazkuganes eta Basabe harana. Halaber, Natura 2000 Sareko espazio bat ere badago: Araxes ibaia KBEa. Espazio horiek *naturagune babestuak* baldintzatzaile gainjarrien bidez babestea proposatu da, eta natura intereseko eremuen kasuan, baita babes bereziko kategorian sartzea ere.

Honako hauek dira Araxes ibaiaren KBEaren kontserbatu beharreko elementu gakoak: ibai korridore ekologikoa, Batasunaren intereseko 91E0 lehentasunezko habitata eta honako fauna espezia hauek: bisoi europarra, loina eta arrain komunitatea, baita ibaietako hegaztiak ere, esaterako, ur zozoa eta martin arrantzalea. Erabileren araubidearen arauketa 215/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta horien kontserbazio neurriak onesten dituenak, xedatutakoak zehazten du, baita 34/2015 Dekretuak, martxoaren 17koak, ingurune hidrikoari lotuak dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (HBBE) arau orokorrak onartzen dituenak, ezarritakoak ere.

Aurkeztutako alternatibetan planteatzen diren jarduketetako batzuk –adibidez, Iruntzialdea industriagunea zabaltzea, Etxeaundiko bizitoki jarduketa berria, Zerrategiko ibai parkea eta bidegorri proposamena– Araxes ibaiaren KBEtik hurbil daude, eta, hortaz, eragina izan dezakete espazio babestu horretan eta kontserbatu beharreko haren elementu gakoetan. Ildo

horretan, positibotzat jotzen da A.2 Zerrategi eta A.4.4 Etxeaundi eremuak osorik desklasifikatzeko proposamena, hiri ereduaren 1 alternatibari jasotakoa; izan ere, lagundu egingo du KBE honen kontserbazio helburuak betetzen eta garapenak ibaiaren ertzetan izango lukeen hirigintza presioa kentzen. Nolanahi ere, aurrerakinak proposamenak askorik zehazten ez dituzenez, zaila da orain zehatz-mehatz baloratzea bertako proposamenek KBEaren kontserbazio helburuetan izan ditzaketen eraginak. Hortaz, hori zehatz-mehatz aztertu beharko da HAPOa izapidetzeko hurrengo faseetan, eta aurrerakinean ez da kontuan hartu proposatutako alternatibak ingurumenari dagokionez aztertzean.

- C. **Fauna.** Ugaztunei dagokienez, hiru espezierentzako interes bereziko eremuak daude: bisoi europarra, muturluze piriniotarra eta igaraba euroasiatikoa. 2004ko maiatzaren 12ko agindu bana dago bisoi europarraren eta muturluze piriniotarraren inguruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan haien kudeaketa planak onesten dituztenak. Plan horiek europar bisoiarentzako interes bereziko eremutzat jotzen du Araxes ibaia, eta muturluze piriniotarrarentzako interes bereziko eremutzat jotzen du Araxes ibaiaren hegoaldea eta Orexaran erreka. Erreka hori, gainera, bisoi europarraren lehentasunezko banaketa gunea da. Igarabari dagokionez, haren intereseko eremua bat dator Araxes ibaiarenarekin.

Hegaztiei dagokienez, aldiz, Lizartza eta Altzo udalerrien eta Anakar, Orunbe eta Uli auzoen mugan daude tentsio handiko aireko linea elektrikoek kontra talka egiteko eta elektrokutatzeko hegaztien babes eremuak. Halaber, Uli mendigunean Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak elikatzeko babes eremu bat dago. Azkenik, udalerrien hegoaldean eta Orunbe eta Uli auzoetan honako hegazti hauentzako puntu garrantzitsuak daude: sai zuria, sai arrea, belatz handia.

HAPOak proposatzen du faunarentzako interes bereziko eremu horiek guztiak babestea, *Espezie mehatxatuak babesteko eremuak* baldintzatzaile gainjarriaren bitartez. HAPOa izapidetzeko prozesuan, zehatzago definitu beharko da baldintzatzaile horri aplikatu nahi zaion erabileren muga, hark ukitutako espezieen babesa eta kontserbazioa bermatzeko. Erabilerak mugatzean, aintzat hartuko dira europar bisoiaren eta muturluze piriniotarraren kudeaketa planetan ezarritako jarraibideak eta mugak, baita Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen kudeaketa planean eta 1432/2008 Errege Dekretuan, abuztuaren 29koan, goitentsioko aireko linea elektrikoetan hegazti-fauna talken eta elektrokuzioen aurka babesteko neurriak ezartzen dituzenean, ezarritakoak ere.

Azkenik, udalerriko fauna babesteko kontuan hartu beharko dira, orobat, Araxes ibaiaren KBEaren erabileraren araubidearen arauak eta azkenik proposatutako jarduketek espazio horretan dakarten inaktuaren analisia, aurreko apartatuan ezartzen den moduan.

- D. **Azpiegitura berdea.** Araxes ibaiaren KBEaren inguruko apartatuan azaldu den moduan, kontserbazioaren xede gisa dituen elementu gakoetako bat da ibai korridore ekologiko gisa duen funtzioa. Halaber, EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen barruan ere konexioagatiko interes bereziko ibai zatitzat jotzen da.

EAEko Korridore Ekologikoen Sarean, gainera, honako elementu hauek ere bereizten dira:

- **Lotura gunek:** hegoaldean, batez ere. “*Araxes-Jaskugane-Basabe harana*” izena du.
- **Lotura korridorea:** erdigunean, batez ere. “*Aralar-Aiako Harria*” izena du.
- **Indargetze eremua.** Beste bi elementuek okupatu gabeko gainerako lurraldea.

Halaber, aurrerakinean, LUEaren antolamenduaren 2 alternatibaren barruan, proposatzen da Lizartzan Araxes ibaiaren adarren sarea osatzen duten 10 errekatatik igarotzen diren korridoreen sare bat proposatzen da. Gainera, LAJek ezarritakoa aintzat hartuta, tokiko azpiegitura berdearen partetzat jotzen dira espazio libreen sistema orokorrak eta tokikoak.



Tokiko korridoreen sare hori eta EAEko azpiegitura berdea, aurrerakinean, “*Korridore ekologikoak*” baldintzatzaile gainjarriaren bitartez babesten dira, eta ezartzen da korridoreak gurutzatzen dituen baso natural zatiak sustatuko eta horien azalera mailaka handitzea bultzatuko duen baso kudeaketa sustatuko dela. Orobat, Araxes ibaiak ibai korridore gisa duen garrantzia kontuan hartuta, erribera habitata berreskuratzea bultzatuko da.

- E. **Onura publikoko mendiak.** Lizartzako udal mugartean onura publikoko 5.728,62 Ha mendi daude. HAPOak *Onura publikoko mendiak* baldintzatzaile gainjarriaren bitartez babesten ditu, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren Araudiaren 10. artikulua ezartzen duenez. HAPOak alor horietako lehentasunezko helburu gisa ezartzen du baso autoktonoak kontserbatzea eta berreskuratzea. Zehaztapen hori interesekotzat jo da, eta kontuan hartu beharko da horien baso kudeaketa planifikatzeko. Edonola ere, kontuan hartuko da baldintzatzaile horretarako Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren V. kapituluak ezartzen duen arauketa.
- F. **Nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzorua.** Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren sailkapenaren arabera, Lizartzako udal mugarteko landa lurzoru gehienak *Basoa-Mendi mehatza* kategoriaren barruan daude: % 77,34. Hurrengo kategoria *Trantsizioko landa paisaia* da: % 19,16. *Balio estrategiko handiko* lurzoruei dagokionez, haien ehunekoa oso txikia da – % 0,92–, hau da, 11,02 ha, Araxes ibaiaren ertzetan. Azkenik, *Ingurumen hobekuntza* eta *Mendi larreak* kategoriaren barruan daude landa lurzoruen % 0,21 eta % 0,34, hurrenez hurren.

Nekazaritzarako erabiltzeko oso egokiak diren lurzorua babesteko, eta Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSari jarraituz, HAPOak LUEaren kategorizazioan bereziki jaso beharko ditu planak definitutako *Balio estrategiko handiko* guneei lotutako zedarritzea eta araudia. Zedarritze hori, aurrerakinaren LUEaren antolamenduko 2 aukerak proposatzen duen moduan, udal plangintzak hedatu ahalko du, baina zehatz-mehatz azaldu beharko dira hedatzea justifikatzeko irizpideak.

Halaber, aintzat hartu beharko dira Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak azaldutako eragozpenak, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSko *Basoak* kategoriak ukitutako lurzorua HAPOak hainbat kategoriatan –*Babes berezia, Ingurumen hobekuntza eta Basoa*– banatzearen ingurukoak, baita dagozkion sektoreko administrazioek garatutako plangintzarekin izan dezakeen interferentzia ere.

Horrez gain, definitutako LUEaren kategoria bakoitzean ezarri beharreko erabileren araubideak jarraitu egin beharko dio aipatutako Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSan xedatutakoari.

Horrez gain, hasieran aurrerakinean planteatutako alternatibak aztertu ondoren, hiri ereduari eta lurzoru okupatzeko strategiari dagokionez, 1 alternatiba aukeratu da, zeinak hiri gunek desklasifikatzen baititu, zeinak, batzuetan, nekazaritzako lurzoruekin bat baitatoz. Jarduteko irizpide hori ontzat jo daiteke, eta uler daiteke bat datorrela HAPOak ezarritako helburuarekin, hots, nekazaritzarako balio handieneko lurzoru identifikatzearekin, babestearekin eta erabiltzea sustatzearekin, erabilera desegokietarako okupa ez daitezen.

Nolanahi ere, HPOa izapidetzeko prozesuan hautatzen diren hiri garapeneko alternatibak zehaztuko dira apurka-apurka, eta, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSaren 10.e. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ezinbestekoa izango da nekazaritzaren sektoreko eragina ebaluatzea, kontuan hartuta hala nekazaritzako lurzoruen okupazioa nola HAPOak jasotako proposamenek eragin diezaieketen nekazaritzako ustiatzeko jasan beharrekoa, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSak “*Planak aplikatzeak eta obrak eta jarduerak egiteak ekarritako sektoreko eraginaren ebaluazio*”ri buruz jasotakoa. Ebaluazio hori, hain zuzen, ingurumen ebaluazio estrategikoan bertan egin ahalko da. Ebaluazio horretan oinarrituta zehaztuko dira, kasuan-kasuan dagozkion neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileak.



Azkenik, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legearen 16. artikulua xedatzen duenez, kontuan hartu behar da balio agrologiko handiko lurren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusitako proiektu edo egintza orori behin betiko onarpena eman baino lehen nahitaezkoa dela nekazaritza-gaietan eskumena duen foru-organoak txostena egitea.

- G. **Paisaiaren kalitatea.** Bi arro bisual katalogatu daude: Araxes eta Orexa, Tolosaldeko LPParen barruan Lizartzakoarekin batera udalerrriaren iparraldean Paisaia Balio Handiko Arro Bisualtzat jotzen direnak. Aurrerakinean adierazten da A17 planoan jasota daudela, baina, egiaz, bidalitako planoetan, A.16 *Azpiegitura berdea* planoan ageri dira. Antolamenduaren oinarrizko irizpide gisa jaso behar da paisaiaren kalitatea mantentzea eta hobetzea plangintzaren eskala guztietan; hasi egiturazko antolaketatik eta HAPOaren bidez egindako erabileren esleipenetik eta garapen plangintzan eta urbanizazio proiektuetan urbanizazio baldintzak ezarri arte. Horrez gain, eskala txikiagoan, iradoki da HAPOaren hirigintza fitxetan zehaztutako garapen esparruetan ezarritako hirigintza jarduketek paisaian integratzeko azterketa bat izatea, 90/2014 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketan Paisaia Babesteari, Kudeatzeari eta Antolatzeari buruzkoaren, 7. artikuluan jasota dagoen moduan.
- H. **Kultur ondarea.** HAPOa idazteko beranduagoko faseetan, hirigintza dokumentuak ondare arkeologikoaren eta arkitekturakoaren katalogo bat jaso behar du, baita babes araudi bat ere, aintzat hartzen dituen aurreko kontsultei erantzuteko Euskal Kultura Ondarearen Zentroak eta GFaren Kultura Zuzendaritzak bidalitako esku hartzeko preskripzioak eta irizpideak. Planoak ere egongo dira, baita elementu bakoitzaren banakako fitxak ere, non jasota egongo baitira elementuaren kokapena, haren deskribapen orokorra, haren ondare intereseko balioak, argazkiak, babes araudia eta kontserbazio egoera.

Halaber, ingurumen azterketa estrategikoak hasierako dokumentu estrategikoaren kultura ondareari buruzko apartatua berrikusi eta osatu behar da, jasotzen duen informazio idatzia eta grafikoa HAPOaren arkeologia eta kultura ondarearen katalogoan ezarritakoarekin bat etortzeko moduan. Orobat, ondareari ekarritako eraginen azterketa sakondu behar da, bermatzeko ez dela eragin negatiborik sortzen. Ildo horretan, 6/2019 Legearen, Euskal Kultura Ondarearenaren, 50. artikulua betez, ondarearentzako beste eragin posible batzuen artean, antolamenduko alternatiba bakoitzean proposatutako eraikuntza berriek kultur ondasun babestuei ekar diezaiaketen kutsadura bisuala aztertuko da, eta dagozkien neurri prebentiboak eta zuzentzaileak hartuko ezarriko dira, esaterako, proposatutako antolamendua birplanteatzea. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak aurreko kontsultetan emandako erantzunean azaltzen zenez, ibilgu publikoetan kokatutako egituretan ingurumenaren aldagaia aintzat hartuko da eraikuntzak aztertzean, ondare intereseko elementuen katalogoan sartzea planteatzen denean, kontserbazioaren eta ibaien ibilgua hobetzearen arteko oreka topatzeko; izan ere, alderdi hori bereziki garrantzitsua da kasu honetan, Araxes ibaiaren ibai korridorearen funtzioari eragiten baitio.

- I. **Jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak.** Lizartza udalerriko sare hidrografikoa Araxes ibaiaren azpiarroan dago, Oria ibaiaren unitate hidrologikoaren barruan. Araxes ibaiak udalerria hegoaldetik iparraldera gurutzatzen du, eta Orexaraneke urak jasotzen ditu Insalusetik ur behera. Bi ibilgu horietako bakoitzak erreka askoren urak jasotzen ditu; hain zuzen, azpimarratzekoak dira, kilometro koadro bat baino gehiagoko isurtze arroa dutelako, Orunbe, Maibera eta Bekoerreka.

Lizartzako udal mugartean, gainazaleko uren egoera kontrolatzeko Errotagain estazioa dago (OAR223 kodea). Jarraipen sarearen 2022ko txostenean, Araxes IIko ur masaren egoera ekologikoa eta egoera kimikoa 2022an onak zirela agertzen zen.

Aurrerakinean proposatutako hiri ereduko eta okupazio strategiako alternatibek hidrologian duten inpaktuari dagokionez, hiru alternatibek Araxes ibaiari eragiten diotenez Lizartzako herrigunea gurutzatzen duelako, aintzat hartuko dira txosten honetan Araxes ibaiaren KBEari ekarritako eraginari dagokionez arestian jasotako zehaztapenak.

Nolanahi ere, jabari publiko hidraulikoa babesteari dagokionez, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 7. artikuluan xedatutakoari jarraituz, zortasun eremua erreserbatu egin behar da oinezkoentzako pasabide publikorako eta zaintza zerbitzuak egiteko; hortaz, jarduketa orotatik libre egongo da –eremuak ixtea barne–, salbu eta komenigarria edo beharrezkoa bada jabari publiko hidraulikoa erabiltzeko. Garapen sektoreetako hirigintzako fitxetan, jabari publiko hidraulikoari eragina jasota badute, zehaztu egin beharko dira EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeneko LPSaren arabera errespetatu beharreko atzeratzeak, eta, ahal dela, erribera zerrenda lehengoratzeko proposamenak jasoko dira. Gainera, berariaz jasoko da ibilguen eta jabari publiko hidraulikoaren polizia gunean egin beharreko jarduketa orotarako beharko dela, aurrez, aroko organismoaren (Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa) aurreko baimen administratiboa edo erantzukizunpeko adierazpena, URAn izapidetuko dena.

- J. **Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko gune babestuak** Geoeskadiren arabera, gune babestuen erregistroaren barruan hiri horniketako 6 harpen babestu daudela: Opote eta Besabekoko errotetako errekek eta Agerre, Zakar, Ipintza eta Golburu iturburuak. Iturburuak 50 eta 2.000 biztanle artean hornitzen dituzte, eta bi errekek, 15.000 biztanle baino gehiago. Besabeko erreka Orunbe auzoan dago, Orexa udalerriarrekiko mugan, eta HAPOan zein hasierako dokumentu estrategikoan agertzen den harpenen zerrendan txertatu beharko da.

HAPOak harpenak babesten ditu, baita erregistratu gabeko besteren bat ere, izendatzen ez duena, *Lurpeko urak babesteko guneak* izeneko baldintzatzaile baten bitartez. Orobat, baldintzatzaile honek akuiferoen zaurgarritasun maila ertain, altu edo oso altuko guneak babesten ditu, baita Insalus ur mineral eta termalen babes perimetroa ere.

Plan Hidrologikoaren 16. artikuluari jarraituz, harpen bakoitzaren babes gune bat ezarriko da, isurpen arrotik 100 metroko radioko arkuak zedarritutakoa 50-2.000 biztanle hornitzen dituzten harpenetarako, eta 500 metrokoa 15.000 biztanle baino gehiago hornitzen dituztenetarako. Ondorioz, aurrerakinean proposatutako moduan, LUEaren antolamenduan baldintzatzaile gainjarri bat ezarriko da, harpena zein babes gunea jasoko dituen, baita HAPOaren hirigintzako araudian baldintzatzaile horri lotutako erabileren araudia ere, eta bermatu egin beharko da harpen horren baliabidearen kalitatea eta kantitatea mantentzen dela. Baldintzatzaile hori Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko gune babestuen artean jaso gabeko beste harpenetara ere zabaldu ahalko da.

Insalus ur mineral eta termalen babes perimetroari dagokionez, Plan Hidrologikoaren 16. artikuluari jarraituz, ur aprobetxamenduko emakidek beren antolamendu dokumentuak bete beharko dituzte, eta txostena eskatu beharko diote autoritate eskudunari.

Halaber, Araxes ibaiari Plan Hidrologikoaren gune babestu hauek ere eragiten diote:

- *GBEan jasotako ekonomikoki esanguratsuak diren uretako espezieen babes gunea. Arrainak babesteko gunea.* Tipologia ziprinikolaren barruan dago.
- Habitata babesteko gunetzat jotakoak edo uraren egoera mantentzea edo hobetzea haien babeserako faktore garrantzitsua duten espezieak (Araxes ibaiaren KBE). Plan Hidrologikoaren 16. artikuluan xedatzen den moduan, gune babestu horien barruan kokatutako emakidak eta baimenak izapidetzean, espazio babestuaren organo kudeatzaileari eskatu beharko zaio irizpena eman dezan lekuari ekar dakioken eraginaren inguruan eta eskatutako jardueraren ondorioak behar bezala ebaluatzeko beharren inguruan.
- *Espezie mehatxatuentzako interes bereziko gunea.* Bisoi europarrarentzako eta muturluze pirinotarrarentzako interes bereziko gunetzat jotzen da, eta Orexan erreka, muturluze pirinotarrarentzako interes bereziko gunetzat. Egin beharreko jarduketek bete egin beharko dituzte bi espezie horientzako kudeaketa planetan xedatutakoak.

Azkenik, Plan Hidrologikoko gune babestuen erregistroan bereizten diren babes bereziko guneen artean, arkeologia eta kultura ondarearekin lotutakoak bereiz ditzakegu: *Mekolalde*



*azpiegitura hidraulikoa (Araxeseko papertegia) eta Bekoerrotako eta Goikoerrotako* ustezko zona arkeologikoa. Gune horien babesa HAPOn dagokion apartatuan aipatutako ondarearen araudiak ematen du.

- K. **Arriskuak.** 105/2008 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoaren, 31.1 b) artikuluari jarraituz, ingurumen azterketa estrategikoari udalerraren arrisku naturalen mapa bat txertatu zaio. Gainera, ingurumen azterketa estrategikoak neurri zuzentzaileak ezarriko ditu, dauden arriskuak txikitzeko edo handitzea saihesteko, eta proposatutako plangintzak aintzat hartu behar ditu ingurumen arrisku horiek, erabilerak eta jarduerak arautzeko.

Lizartzako udal mugarteko arriskurik garrantzitsuenei dagokienez, honako hauek aipa daitezke:

- Uholde arriskua: Lizartza udalerriko orografiak eta geomorfologiak, eta sare hidrografikoko emariak, uholde arriskuko gune zabalak dituen lurraldea osatzen dute. Araxes ibaiaren ibilgua eta haren ingurua arrisku potentzial esanguratsuko gunetzat (APEG) jotzen du Uholde Arriskua Kudeatzeko 2022-2027 Planak, ES017-GIP-3.1 Lizartza kodearekin.

Aurrerakinean, *Eragin hidraulikoko guneak* izeneko baldintzatzaile gainjarri bat ezartzen da, arrisku horrekin lotua, eta haren araudia Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoak eta EAEko Kantauriar isurialdeko Ibaien eta Erreken Ertzen LPSak ezarritakoa izango da.

Aurrerakinean jasotako garapen proposamenen artean, honako hauek daude lehentasunezko fluxuko eremuan (LFE): 1 alternatibako Iruntzialdea industriagunean industria lurzoria zabaltzea, 2 alternatibako Zerrategiko bizitoki proposamena, eta mugikortasuneko alternatiben barruan Elbarrena kaleko atzeko aldean proposatutako lur gaineko aparkaleku gunea. Proposamen horien uholde arriskua aztertzean, Kantauriko Plan Hidrologikoaren 43. artikuluan lurzoru urbanizatuan lehentasunezko fluxuko eremuetarako ezartzen diren mugei jarraitu beharko zaie. Gainera, URAk eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak aurreko kontsultei erantzuteko txostenetan egindako iradokizunari ere erreparatu beharko zaio, proposatzen baitute azkenean garatutako alternatiban desklasifikatzeko Araxes ibaiaren ezker ertzean lehentasunezko fluxuko eremuaren barruan kokatutako Lizartzako herriguneko hiri lurzoruak.

Uholde arriskua duen gainerako gunean kokatutako garapen proposamenei dagokienez, lehenik eta behin, udaletxearen zuzkidura erabilera Herri Eskola handitzeko aldatzea, URAren txostenaren arabera, bateraezina da Plan Hidrologikoko araudiarekin (40.3. eta 45.3. artikulua), non eta ez den proiektuan jasotzen eta frogatzen neurri egokiak eta nahikoak hartuko direla pertsonen eta ondasunen segurtasunaren zaurgarritasuna txikitzen dela bermatzeko.

Halaber, LFEtik –Elizalde, Alondegia, Etxeaurdi 1 eta 2 eta Zuloaga– kanpoko guneetan kokatutako bizitoki proposamenei dagokienez, eraikuntzak bizitoki erabilera berriak kontuan hartuz diseinatu beharko dira, 500 urteko itzulera aldiko uraldiak ez eragiteko moduko kotan. Sestrapeko garaje eta sotoetarako, esparrua aipatutako uraldirako estankoa dela bermatu beharko da, eta azterlan espezifikoak egin beharko dira, eraikuntzak kolapsa ez daitezten. Gainera, soto eta garaje guztiek haizebideak eta ebakuazio bideak izan beharko dituzte, 500 urteko itzulera aldiko uraldiaren kotaren gainetik, eta aintzat hartu beharko dute, ahal den heinean, uholde larrialdietan irisgarriak izan behar dutela.

Laburtzeko, uholde arriskua biziki kontuan hartu beharko da, HAPOak izapidetze prozesuan ezarriko duen garapen alternatiba garatzeko, eta egun udalerrian dagoen handitzea ekidin beharko da. Garapen berriek Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren 2022-2027 Plan Hidrologikoaren Araudiko 37. eta 45. artikuluen artean uholde arriskuaren inguruan ezarritako erabilera mugak bete beharko dituzte, baita horiek

aplikatzean administrazio hidraulikoaren nahitaezko baimenak ezarritako jarraibideak ere, edo, bestela, ibilguen polizia guneen kanpoan kokatutako garapenen eremuetarako, lurralde antolamenduko eta hirigintzako administrazio eskudunek araudi horren 37.5. artikuluan xedatutakoari jarraituz emandako baimenetan ezarritakoa.

Azkenik, garapen eremuen uholde arriskuagatiko eraginak berariaz jasota utzi beharko dira hirigintza fitxaren sektoreko baldintzatzaile gainjarrien apartatuan, jarduketa garatzeko baldintza orokor moduan.

- *Basoko suteen arriskua.* Lizartzako udal mugartean sute arrisku txikia dago oro har, baina gune txiki batzuek basoko suteen arrisku handia eta oso handia dute. Ondorioz, aintzat hartu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Basoko Suteen Arriskuagatiko Larrialdiko Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinean jasotako baldintzatzaileak, basoko suteen arrisku handiko guneetako edo hiriaren eta basoaren lotura guneetako erabileretarako autobabes plana egiteko nahitaezkotasunari dagokionez, baita kanpatzeko instalazioei dagokienez ere. Aurrerakinean arrisku horri lotutako baldintzatzaile gainjarri bat gehitu da: *Basoko suteen arriskua.*
- *Arrisku teknologikoa. Salgai arriskutsuen garraioa.* Udalerrian, salgai arriskutsuak GI-2135 errepedetik ibiltzen dira, eta arrisku kartografiatua oso txikia da. Baldintzatzaile gainjarri bat ezarri da arrisku horretarako, baita haren eragin zerrendak ere. Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua.

L. **Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua.** Geoeuskadiren arabera, Lizartzan, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan kutsatuta egon daitezkeen lurzorua dituzten 8 partzela daude; horietako bat zabortegi bat da, eta, gainerakoak, industria partzelak.

Aurrerakinean *Lurzorurako kutsatzaileak izan daitezkeen jarduketak dituzten lekuak* baldintzatzaile gainjarria ezarri da. Partzela horietan, 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoak, xedatutakoaren arabera, kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lurzoru baten erabilera aldatzen bada, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egin behar da.

Era berean, baldintzatzaile horrek ukitutako hirigintza eremu horietako bakoitzaren fitxa urbanistikoetan jaso beharko da kutsatuta egon daitezkeen lurzorua daudela eta horrek dakartzan legezko betebeharrak.

M. **Klima aldaketa** HAPOak bere gain hartu behar ditu klima aldaketaren aurkako borrokaren irizpideak, bai gas isurketak txikitzeari –eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak sustatzea, motordun mugikortasunaren beharrak murriztea, eta abar– bai ondorioetara egokitzeari dagokionez. Bi alderdi horien irizpideak zehazteko, kontuan hartu ahalko dira Klima aldaketaren ondorioak baloratzeko eta Gipuzkoako hirigintza plangintzan sartzeko tresnaren (<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ingurumena>) dokumentazioan ezarritakoak, tresnak berak egiteko aukera ematen duen HAPOaren antolamenduaren proposamenen azterketa egin ondoren egokitutakoak. Oro har, egokitze beharrei dagokienez, IHOBek egindako *EAEko udalerriek klima aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioak* Lizartzako klima aldaketaren arrisku nagusi gisa nabarmentzen ditu ibaien uholdeak hiri inguruan duten eragina, eta, gero, bero boladek giza osasunean dutena.

## 5.- LURZORU URBANIZAEZINA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK.

HAPOa izapidetzean garatu beharreko lurzoru urbanizaezinen antolamenduak bermatu egin beharko du baliabide naturalen eta nekazaritzakoeren erabilera jasangarria, eta babes egokia eman behar die elementu baliotsuenei edota urrakorrenei. Antolaketa horretan udalerriko lurzoru

urbanizaezin guztirako erabilerak eta jarduerak arautuko dira, eta horretako Lurraldea Antolatzekeo Gidalerroetan eta Nekazaritza eta basogintzako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako antolaketa kategoriak esleituko dira.

Lurzoru urbanizaezina kategoriatan banatzeko, eremu bakoitzaren ezaugarriak, eremu horien harrera gaitasuna, eta hartzen dituzten natur baliabideen urrakortasuna eta balioa hartuko dira oinarritzat. Antolamendu horretan aintzat hartu beharko dira txosten honen 4. apartatuan jasotako zenbait alderdi eta zuzendaritza honek egindako kontsulten izapidean hainbat organismok emandako erantzunen edukia.

Gainera, aurrerakinean txertatutako baldintzatzaile gainjarrien proposamen zabala berrikusiko da, eta egiaztatuko da 4. apartatuan azaldu den moduan batzuetan ez ote dagoen LUEaren kategorizazioaren bitartez emandako babesaren bikoiztasunik. Hala bada, ezabatu egin beharko liriateke, kontuan hartu beharreko erabilera jarraibideak gune jakin batean errazago aztertzeke.

Orobat, finkatu beharko dira lurzoru urbanizaezinean onargarriak diren jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak, bai HAPOren araudian bertan bai horren inguruko ordenantza erregulatzailer bereziak prestatuz eta onartuz. Adibidez, ingurune fisikoaren antolamenduaren arloan udalak ezarritako helburua betetzeko, landa ingurunean energia berriztagarrien instalazioak ezartzea ahalbidetzekoa, gune egokiak zedarritu beharko liriateke energia berriztagarrien ekoizpenerako instalazioak ezartzeko, baita haiek sortzen duten energia elektrikoa biltegitratzeko ere, eta erabilera horiek lurzoruaren kategoria bakoitzean ezartzeko araubidea definitu beharko litzateke, errazago ezar daitezkeen dagoeneko badauden eraikuntzetan eta, bigarren aukera gisa, lurzoruan, guztia LUEan egiten diren bestelako erabilerekin bateragarri izateko moduan.

Horrez gain, HAPOaren araudiak besteak beste, honako alderdi hauek erregulatuko ditu: hondakin uren bilketa eta tratamendu egokia, obren eta eremu narriatuen paisaia baldintzen lehengoratzea, pistak egitea, egiturak paisaian integratzea, heskaien zaintza eta landa-eremuaren zein naturaren ingurumen baldintzak hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

## **6.- HIRI LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK.**

Txosten honen 3. apartatuan aipatutako helburuekin eta irizpideekin bat, honako gomendio hauek hartuko dira kontuan hiri eremuak antolatzerakoan, hala badagokio. Honela eta sektore urbanizagarri berriak mugatzerakoan eta antolatzerakoan:

- A. HAPOan aurreikusitako hirigintza jarduerak proportzionaltasun irizpideak kontuan hartuta egikarrituko dira, eta une bakoitzean bizitoki erabileretarako eta jarduera ekonomikoetarako benetan dauden premietara egokituko dira, lurzoruaren gehiegizko kontsumoa eta bigarren bigarren etxebizitza sustatzea saihestuz.
- B. Garapen berrien jasangarritasuna bermatuko da, hirigintzako araudiaren bitartez edo HAPOaren hirigintza fitxetako antolamendu xehakatuan honako honetarako irizpideak eta baldintzak txertatuz:
  - Eraikinak saneamenduaren sistema publikoetara batzera behartzea, eta, horretarako, banakako tratamendu irtenbideak eta jabari publiko hidraulikora isurketa puntu berriak saihestea, Plan Hidrologikoaren Araudiaren 52.1. artikuluan xedatutakoari jarraituz.
  - Zolatzea eta okupazio iragazgaitza murriztea, behar-beharrezkoa den azalerara, eta drainatze jasangarriko hiri sistemak txertatzea, aurretik dagoen egoeraren balioaren aldean jariatze urak handituta ere konpentsatzea edo esanguratsua ez izatea eta sortutako jariatze uren tratamendua aurreikusteko moduan. Ildo horretan, Plan





Hidrologikoaren Araudiaren 48.1. artikulua xedatzen duen moduan, HAPOaren araudi orokorrean ezarri behar da nahitaezkoa dela urbanizazio proiektuek urbanizatu beharreko lurzuaren espazio librean akabera iragazkorren ehunekoak zehaztea – gutxienez % 20 espaloietan eta % 35 plazetan eta hiriko berdeguneetan–.

- Hiri gunek eta gune urbanizagarriak arrisku naturaletatik aldentzea, eta, Lizartzaren kasuan, bereziki aintzat hartuta uholde arriskuekin lotutakoak.
- 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoak, zaratarako ezarritako kalitate akustikoko helburuak betetzea.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoan, xedatutako helburuak, irizpideak eta zehaztapenak betetzea. Hortaz, bultzatuko da energia berriztagarrien instalazioak bateragarriak izatea bestelako erabilera batzuekin, adibidez, gainazaleko aparkalekuenarekin; erraztu egingo da luraren erabilera berriztagarriko sortze banatuko instalazioak ezartzea, eta erraztu egingo da geotermiaren edo biomasaren bitartez beroa probesteko sare kolektiboak gehitzea garapen berriko eremuetan, eta hiri eraberritzeko eta lehengoratzeko gunetan. Horrez gain, lege horren 7.5. artikuluan xedatutakoa betetzeko, ibilgailu elektrikoak kargatzeko erabilera publikoko estazioak aurreikusiko dira hiri inguruneetan, baita bizikletak erabiltzea eta aparkatzea errazteko espazioak ere.
- Eraikuntza eta azpiegitura berriak bisualki eta estetikoki integratzea, Lizartzako udal mugartearen paisaia kalitatea babesteko eta kultura ondareari ez eragiteko.

C. Eremu eta sektore bakoitzeko hirigintza arau berezietan ingurumen baldintzatzaileen zerrenda bat jasoko da; eta baldintza horiek derrigorrez bete behar dira bai antolamendu xehatua eta bai urbanizazio proiektuetan. Besteak beste, urbanizazio lanak egikaritzeko aplikatu beharreko neurri babesgarri eta zuzentzaileak jasoko dituzte, eta bidezkoa denean, baita urbanizazio gastutzat jo behar diren neurri konpentsagarriak ere.

## **7.- INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA**

Lizartzako Udalak egin behar duen ingurumen azterketa estrategikoa (IAE) HAPOaren zati bat izango da, eta bertan identifikatuko, deskribatuko eta ebaluatuko dira ingurumenean sortutako eragin esanguratsu posibleak, plana eta teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarriak diren arrazoizko alternatibak aplikatuz eratorritakoak. Helburua da hura aplikatzean ingurumenean sortutako eragin negatiboak saihestea edo txikitzea eta ingurumenean eta jasangarritasunean eragingo duten ekintza positiboak planteatzea.

Ingurumen azterketa estrategikoa, gutxienez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du. Era berean, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumenaren iraunkortasun txostenei buruz II. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du.

Eranskin horietan definitutako apartatuak garatzean, jorratu egin behar dira txosten honetan adierazi diren alderdiak; administrazioek, erakundeek eta herritar interesdunek alegazioetan arazotsutzat jotako ingurumen arazoak; eta honako hauek:

### **7.1. Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekiko erlazioa**

Ingurumen azterketa estrategikoan, HAPOren edukia jasoko da laburtuta (edo hara bideratuko da), eta laburpen horretan adieraziko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jarduera eta zehaztapenak; baita aintzat hartu diren gainerako alternatibak ere. Halaber, Planean mugatutako esparruen planifikazio xehatua egiteko aurreikusi diren jardueren eta garapen tresnen denbora planifikazioa ere azaldu egingo da.

Bestetik, HAPO horrek hiri antolaketako beste tresna batzuekin izan ditzakeen interakzioak, hala nola planarekin zerikusia izan lezaketen lurralde planekin eta plan sektorialekin izango dituen erlazioak aztertu beharko dira. Kontuan hartu beharko dira, gutxienez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak (LAG).
- Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (Tolosaldea).
- Gipuzkoako Bidegorrien LPSa.
- EAEko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra) antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, eta honen 1. aldaketa.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2022-2027.
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, besteak beste, Kantauri Ekialdeko

demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren uholde arriskua kudeatzeko planaren

berrikuspena eta eguneraketa onesten duena.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko Esparru Programa 2030.
- Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050 eta Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030.
- Klima Aldaketaren aurka borrokatzeko Gipuzkoako eta Euskadiko Estrategiak.

HAPOeko helburuek eta jarduerak, esparru horretan eragiten duten planen eta programen helburu eta xedapenekin duten koherentzia eta erlazioa zehaztuko da. Horrek, xede komunak lortzea izango du helburu, eta halaber, HAPOaren barruan jarduteko dauden alternatibak aztertzea, betiere gainerako programen helburuekin eta jarduketa ildoekin ezkutatzeko, ezadostasunak edo bateraezintasunak gerta litezkeen kasuetan. Era berean, ukitutako eremuan aplikatu beharreko gainerako planekin sor litezkeen bigarren mailako ondorioak, ondorio metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Era horretan identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero behintzat, Planaren eraginak identifikatu eta ebaluatzeko atalean aztertuko dira.

## **7.2. Nazioartean, Europar Batasunean , estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ingurumena babesteko ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren egiaztatzea.**

Ingurumen azterketa strategiakoan azaldu egin beharko da udal antolamenduan nola txertatu diren irismen agiri honen 3. apartatuan ingurumena babesteari eta iraunkortasunari buruz adierazitako irizpideak, edota HAPOa egiterakoan ezarritakoak, halakorik izanez gero; eta horretarako, ahal dela behintzat, finkatutako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko dira.

## **7.3. Lizartza udalerrriaren ingurumenaren eta haren bilakaeraren ezaugarriak, klima aldaketa kontuan hartuta**

Aurkeztutako hasierako dokumentu estrategikoko informaziotik abiatuta, eta irismen dokumentu honen 4. apartatuko edukia aintzat hartuta, ingurumen azterlan estrategikoak Lizartzako udalerraren ingurumen ezaugarriak deskribatu beharko ditu, eta haren egungo egoeraren diagnosi osoa egin beharko du. Hori horrela, beharrezko azterketa espezifiko guztiak egingo dira, kontsultatu diren informazio iturriak eta bibliografia adieraziz eta lekuan bertan egindako lanaren eta erabilitako metodologiaren berri emanez.

Diagnostiko horretan deskribatu egingo da natura baliabideen, nekazaritzakoen, ondarekoen, eta paisaiakoen egoera, eta hiri eremuen eta landa eremuen ingurumen kalitatea; era berean, bereziki zaindu edo babestu behar diren elementu edota baliabideak identifikatuko dira.

Atal horretan, gainera, udalerrak bizi dituen ingurumen arloko presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPOan nola eragingo duten balioesteko, edota planak arazo horiek larriagotuko dituen aztertzeke.

Deskribapen horrek ez du ingurune fisikoaren ezaugarrietara mugatu behar; horrez gain, Planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitezkeen hiri metabolismoko alderdiei edo aldaerei buruzko informazioa eman behar du; esate baterako, ur hornidura eta saneamenduko sistemak, edo mugikortasun sistema (garraio publiko/pribatua, motorduna/motorgabea), zarata mailak, energia kontsumoa eta abar. Zehazki, eta indarreko legedia betetzeko, gutxienez honako azterlan hauek jaso beharko dira:

- **Baliabide hidrikoen eskaria.** Uren Legearen Testu Bateginaren 25.4. artikulua aipatzen duen Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko txostena egin ahal izateko, HAPOaren zehaztapenek eskatzen dituzten baliabide hidrikoen eskariaren azterlan bat gehituko da, eta, hala badagokio, baliabide horiek babesten dituzten lagapen administratiboak edo uren eskubideak zehaztuko dira. Baliabide hidrikoen behararen inguruan aurkezten den zenbatespena egiteko, aintzat hartu beharko dira Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoaren berrikuspenaren, 35/2003 Errege Dekretuak onetsi zuenaren, *Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren Plan Hidrologikoaren* arauzko xedapenen I. eranskinaren 6. apendizeko 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoa.
- **Saneamenduaren eta arazketaren eskaria.** Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 245. artikulua eta hurrengoek ezarritako baldintzek betetzen laguntzeko, plan orokorrak bere zehaztapenek dakartzaten saneamendu eta arazketa beharren analisi bat eduki beharko du.
- **Zarata.** 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoak, 23. artikuluan xedatutakoa betez, HAPOak hartzen duen esparruaren zonakatze akustikoa egingo da, aipatutako dekretuaren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak kontuan hartuta; eta dokumentazio urbanistikoari zonakatze horren berri ematen duen plano bat erantsiko zaio. Edonola ere, etorkizunean hirigintza garapenak aurreikusi diren eta HAPOak xehakaturik antolatutako sektore edo guneeetan, hots inaktuaren azterketa egin beharko da, 213/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 37. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Azkenik, kontuan hartu behar da 6/2019 Legearen, Euskal Kultura Ondareari buruzkoarenaren, 50. artikuluan xedatutakoa, eta, horrenbestez, kultura ondasun babestuei eragin diezaiekeen hots kutsadurarik badagoen aztertuko da, eta behar diren neurri zuzentzaileak eta neurri babesleak hartuko dira.
- **Jasangarritasun energetikoa.** 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren, 7. artikuluarri jarraituz, lege horren 7.3. artikuluan ezarritako jasangarritasun energetikoaren azterlan bat izan beharko du HAPOak.

Udalerrriaren egungo ingurumen egoera diagnostikatu ondoren, egoera horrek izan lezakeen bilakaeraren aurreikuspen bat egingo da, ingurumenean eragin dezaketen joera sozioekonomikoak –espero den klima aldaketa, esaterako– kontuan hartuta. Azken faktore horri dagokionez, klima aldaketak udalerrian eragin litzakeen inpaktuak identifikatzea komeni da; eta, era berean, aldaketa horretara egokitzeko batez ere zein esparrutan jardun beharko litzatekeen erabakitzea.

Behin Lizartzako ingurumenaren ezaugarri nagusiak deskribatu ondoren, xehetasun handiagoz edo txikiagoz deskribatuko dira HAPOak jarduketa esanguratsuenak edo eragin handienekoenak kokatzea planteatu duen lekuak, adibidez, hirigintza garapenak egikaritzea aurreikusi den lekuak.

Azkenik, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, garatzen duen dekretuak, hau da, Premiazko Neurriek buruzko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 31.1 artikuluan ezarritakoa betez, lurzoru horiek HAPOan jasotako aurreikuspenak hartzeko duten gaitasunaren azterketa aurkeztuko da. Horretarako aintzat hartuko da, besteak beste: uren administrazio eskudunak jabari publiko hidraulikoa babesteari buruzko informazioa, planteatutako garapen berriei zerbitzua emateko beharrezkoak diren azpiegitura nahikoa dagoela bermatzeko hornidura eta saneamendu sareari buruz Gipuzkoako Ur Kontsortzioak emandako informazioa, errepideen eta lehendik badauden gainerako azpiegituren gaian eskumena duten administrazioen planean jasotako aurreikuspenak izan ditzaketen eraginei buruzko txostena eta abar.

Atal horretan, agiriari azkenean erantsiko zaizkion gai guztiei buruzko kartografia –eskala egokian egina– hartuko da oinarritzat.

#### **7.4. Alternatibak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako alternatiba aukeratzeko arrazoiak.**

Ingurumen azterketa estrategikoak, gainera, HAPOaren helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izan daitezkeen alternatiba guztien ingurumen arloko azterketa bat jaso behar du. Horretan, aztertutako alternatiba bakoitzak ingurumenean izan lezakeen eragina ebaluatuko da, eta planaren helburuei zenbateraino erantzungo zaien zehaztu, ingurumen arloko helburuei bereziki.

Hori horrela, azterketaren esparruan dauden ingurumen arloko elementu eta arazo nabarmenak identifikatu ostean, eta ingurumena babesteko helburuak ezarri ondoren, HAPOa garatu ahal izateko eta bertan ezarritako helburuak betetzeko teknikoki, ekonomikoki, eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren alternatibak proposatu beharko dira. Eta horien artean “0 alternatiba” sartu beharko da derrigorrez; hau da, udalerrriaren egiturazko antolamendua ez aldatzekoa. Ahal denean, hirigintzako jarduerak marrazteko edo diseinatzeke alternatibak konparatu egingo dira, alternatiba horiek ezartzeko erabil daitezkeen kokalekuak bezalaxe.

Aurrerapen agiri honetan jasotako planteamenduak aintzat hartuta, alternatiben azterketa horretan jaso egin beharko dira honako analisi xehatu hauek:

- **Bizitegi garapen berriak kokatzeko alternatibak.** Lehenik eta behin zehaztu egin behar da HAPOaren indarraldirako udalerrian beharko diren etxebizitzaren kopurua, eta kuantifikazio hori gizarte, demografia eta ingurumen alorreko parametroetan oinarrituta egingo da, betiere lurralde antolamenduko jarraibideek kuantifikazio horri buruz ezartzen dituzten mugen barruan. Bizitoki gaitasuna zehaztu ondoren, azkenean sakonago aztertzea erabaki den bizitokiak kokatzeko eta banatzeko aukerak aztertuko dira. Azterketa horretan aintzat hartu beharko da kontuan hartutako etxebizitzaren kokapen eta tipologia aukerak, ingurumen elementu baliotsuetan, esaterako, espazio babestuetan (Araxes ibaiaren KBEa) eta balio agrolotiko handiko lurzoruetan eta/edo nekazaritza

ustiatzei lotutakoetan eragin handiak dakartzatenak edo uholde arriskuagatik pertsonengan edo gauzetan kalte arriskua handitzen dutenak baztertzeko.

- **Jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako lurzoru alternatibak.** Analisiak zehaztu egin beharko ditu udalerriak jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako dauden egiazko lurzoru beharrak. Behar horiek zehaztu ondoren, jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako kokapen eta banaketa aukerak aztertu beharko dira, azkenean sakonago analizatzea erabaki den horiek. Analisi hori beti egingo da jasangarritasun irizpideen arabera, eta baztertu egingo dira ingurumen balio handiko elementuetan, esaterako, espazio babestuetan (Araxes ibaiaren KBEa) eta balio agrologiko handiko lurzoruetan eta/edo nekazaritzako ustiatzei lotutakoetan edo edo pertsonengan edo gauzetan kalte arriskua handitzen dutenak.

Alternatiben analisi horiek lehentasunezkoztat jo beharko dute, HAPOaren aurrerakinean proposatu den moduan, dagoeneko urbanizatutako eremuak finkatzea edo berritzea, egun LUEan txertatutako edo urbanizatu gabeko guneak garatu aurretik, beharrei erantzuteko.

Orobat, aukerak aztertzean aintzat hartuko da erabilerek proposatutako hirigintza guneetan duten barneko banaketa, hauek betetzeko:

- Kontuan hartzea ingurumen arriskuak, esaterako, uholde arriskua eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.
- Araxes ibaiko KBEak, balio agrologiko handiko edo nekazaritzako ustiatzei lotutako lurzoruek jasandako eragina txikitzea, baita Batasunaren intereseko landarediak eta habitatek jasandakoa ere, eta jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak berreskuratzea.

Nolanahi ere, alternatiben azterketan adierazi beharko da zein metodologia erabili den, eta zein neurritan kontuan hartu diren ingurumen alderdiak, alderdi tekniko eta funtzionalak, eta alderdi ekonomikoak garatu behar den irizpide anitzeko azterketan. Azkenean aukeratutako alternatiba ez badator bat ingurumen balioespen onena daukan alternatibarekin, hori aukeratzeko arrazoiak behar bezala azaldu beharko dira.

Txosten horri, proposatutako alternatiba guztien kokalekua eta ezaugarriak adierazten dituen dokumentazio kartografikoa erantsiko zaio.

## 7.5. HAPOko zehaztapen eta jarduketa ezberdinek ingurumenean dituzten eragin adierazgarrien identifikazioa eta balorazioa.

Identifikatuko eta baloratuko da nola eragingo duten HAPOan aurreikusitako jardueren ingurumeneko elementu desberdinetan, besteak beste honako hauetan:

- Araxes ibaiaren KBEa: 42/2007 Legearen, abenduaren 13koaren, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoaren, 46. artikuluari jarraituz, espazio horretan duten eraginak behar bezala ebaluatuko dira.
- Batasunaren intereseko habitatak.
- Balio estrategiko handiko nekazaritza lurak eta abian dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak. Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren dagokienez eta azkenean hautatutako garapen proposamenean arabera, aintzat hartuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Oreka Berdeko departamentuak aurreko kontsultei erantzuteko egindako txosteneko ustiatzeien zerrenda (4.2. puntua).



- Jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak, baita Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko eremu babestuak.
- Paisaia.
- Hiri ingurunearen kalitatea, zaratari edo trafikoari dagokienez.
- Giza osasuna.
- Ondare monumentala eta arkeologikoa.

Halaber, aztertu beharko da zein neurritan eragiten dien HAPOn aurreikusitakoak alderdi hauei:

- Mugikortasunaren eskaria.
- Ura eta energia bezalako baliabideen kontsumoa.
- Hondakin uren isurketa eta hondakinak sortzea.
- Uholde arriskuak.
- Klima aldaketa apaltzeko eta hartara egokitzea.

Aztertutako inpaktuek zeharkako efektuak, metatze efektuak, efektu sinergikoak, epe laburreko, ertaineko eta luzeko efektuak, behin betiko eta aldi baterako efektuak, eta efektu positiboak eta negatiboak jaso beharko dituzte.

Identifikazioa eta balorazioa ez da mugatuko antolatutako eremuaren eraldaketa fisikoak sortutako zuzeneko inpaktuetara; aitzitik, proposatutako antolamenduak edo erabileren eta jardueren arauketak sortutako zeharkako ingurumen inpaktuak jaso beharko ditu.

Detektatutako inpaktuen garrantzia zehazteko, kontuan hartuko da 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, III. eranskinean, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Planen eta Programen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Estrategikoa egiteko Prozedura arautzen duenak, III. eranskinean xedatutakoa.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, VI. eranskineko 8. apartatuan zehaztutako terminologia erabiliz, identifikatutako eragin bakoitzaren magnitudea eta intentsitatearen ezaugarriak zehaztu eta balioetsiko dira. Horretarako, eragina behar bezala deskribatzeko eragin adierazleak (adierazgarriak, esanguratsuak, baztertzailak, zenbakarriak eta identifikatzen errazak) eta eraginari dagokionez gutxieneko muga onargarriak finkatzeko ingurumen arloko kalitatezko helburu zenbait zehaztuko dira, indarreko legeria erreferentzia modura hartuz, eta baita eskumeneko organoen jarraibideak ere, kasu bakoitzean.

Era berean, balorazio horretan erabakiko da, hala egokituz gero, HAPOaren barruan zeintzuk diren indarreko lurralde, hirigintza eta ingurumen arloko plangintzarekin bateraezinak diren jarduketak, edota ingurumenean ondorio kritikoak eta onartezinak sortuko dituztenak. Kasu batean zein bestean, jarduketa horiek aldatu edota baztertu egin beharko dira.

Azkenik, arrazoitu egingo dira egokiago jotzeagatik inpaktuen ebaluazioa prozesuaren ondorengo fase batzuetara atzeratzen diren alderdiak.

## 7.6. Ingurumen integrazioko neurriak

Ingurumen txosten estrategikoak neurriak zehaztuko ditu HAPOak ezarritako jarduketek ingurumenean dituen eragin nabarmen bakoitza prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, arintzeko.



Halaber, HAPOan ingurumen alderdiak sartzekak ez luke mugatu behar gerta litekeen inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, neurri horiek osatuz, ezarri beharko lirateke udalerriko ingurumen arazoak konpontzen lagunduko duten eta ingurumen kalitate hobea lortzen lagunduko duten neurriak.

Horrela, Lizartzako HAPOaren ingurumen integrazioa honako neurri mota hauek hartuz egin beharra dago:

- Ingurumen alderdiak aintzat hartzea eta lurralde antolamenduan eta hiri diseinuan txertatzea, aurretik zeuden arazoak edo eraginak prebenitzeko edo zuzentzeko. Ez du berariazko aurrekonturik behar izaten. Besteak beste, honako hauek: lurzoru urbanizaezinaren antolamendua definitzea, balio naturalen babes egokia bermatuko duena, eraginak izan ditzaketen jarduerak arautzeko ordenantzak txertatuko duena, garapenak sentikortasun txikiko eremuetan kokatuko dituen, eraikinen jokabide energetikoa hobetuko duena, eguzki argiaren erabilera hobetuko duena eta abar.
- HAPOaren zehaztapenek garatutako planen eta proiektuen ingurumen eragin negatiboak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak, klima aldaketan duten eragina arintzekoak eta hartara egokitzekoak barne. Neurri horiek egikaritze proiektuen zati bezala hartuko dira, eta ondorioz, proiektuen aurrekontuetan jaso beharko dira. Horietako asko zehaztu egin beharko dira planarekin edo garapen proiektuarekin batera. Baina, edozein kasutan ere, HAPOak neurri horiek identifikatu egin beharko ditu, horien gutxieneko karakterizazio bat egin, eta garapen planetan eta proiektuetan nahitaez jaso beharrekoak diren zehaztu.
- Egiaz gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatzeko neurriak, behin saihetsezintzat jo direnean. Honako hauek zehaztuta gelditu behar dute antolamendu tresnan:
  - Non konpentsatuko den tokiko korridoreen sarea, berreskuratzea komeni den gune narriatuetan oinarrituta lehentasunak definitzen dituen azterlan batean eta aukera posibleetan oinarrituta.
  - Konpentsazio ekintzak jasoko dituzten lursailak eskuratzea lotuta egongo dela sailkatzen den lurzoruarekin, adibidez, sistema orokor atxiki baten edo zuzkidura publikoak lortzeko jarduketaren bidez.
  - Konpentsazio neurrien kostua sektore berriaren urbanizazio gastu bat izango dela.
  - Konpentsazio neurriak egikarituta egon behar dutela eraikuntza lizentziak eman aurretik.
- Udalerriko ingurumena hobetzeko jarduketak, narriatutako espazioen lehengoratzeko ekologikoa eta/edo paisaiarena edo espazio edo eremu jakin batzuen ingurumen kalitate hobetzea xede dutenak. Hori horrela, leheneratu beharreko kokalekuak edota ingurumen baldintzak hobetzeko jarduerak identifikatu eta lehentasun-hurrenkera zehaztu egin beharko lirateke HAPOn, jarduera horiek gauzatzeko programa bat ezarrita.

Ingurumen integrazioko neurriek jasota egon beharko dute HAPOaren hirigintzako dokumentazioan, eta haien kostu ekonomikoa zenbatetsi beharko da, baita finantzaketa moduak –udal aurrekontuen kontura, dirulaguntzen bidez, beste organismoekiko hitzarmenekin, urbanizazio gastuen kontura eta abar– eta egikaritzeko denbora plangintza ere. Azkenean, HAPOa garatzeko plan eta proiektuetan derrigorrez aintzat hartu beharreko neurriak zehaztu egingo dira.

## 7.7. Ingurumena zaintzeko programa, planaren eraginei dagokienez.



Ingurumen azterketa estrategikoan jaso beharko da HAPOak ingurumenean izan ditzakeen eraginak zaintzapean izateko programa bat, identifikatutako inpaktu garrantzitsu bakoitzaren jarraipena egin ahal izateko, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak betetzeko eta horiek eraginkorrak izateko, baita HAPOan zehaztutako ingurumen helburuak lortzeko ere.

Horretarako, programak honako hauei buruzko informazioa jaso beharko du aldian-aldian:

- Proposatutako ingurumen helburuen betetze maila.
- Plana martxan jartzetik etorritako ingurumen ondorio kaltegarrien garrantzia.
- Neurri prebentibo, zuzentzaile, eta dagokionean, konpentsatzaileen ezarpena eta horien eraginkortasuna, eta neurri horiek planaren eta egikaritze proiektuen segidako garapen dokumentuetan sartzea.
- Aurreikusi ez diren baina inguruneke elementuetan azaldu diren ingurumen ondorio kaltegarrien identifikazioa.
- Kasuan kasuko sektorean (ura, hondakinak, zarata, kutsatuak egon daitezkeen lurzorua, errepideak, jarduera sailkatuak, eta beste) eskumena duten erakunde edota administrazioek bidezko baimenetan ezarritako ingurumen baldintzak betetzea, baita udal mailako baimenetan ezarritakoak ere.

Xede hori betetze aldera, ikuskapen programak honako datuak jaso beharko ditu:

- Jarraipena egin beharko zaien ingurumen sistemak, alderdiak edo aldaerak identifikatzea.
- Egin beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, bakoitzaren metodologia (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna eta abar) eta kronograma adierazita.
- Jarraipen horretan erabiliko diren adierazleak, bakoitzaren unitateak eta gehieneko edo erreferentziako mailak adierazita. Adierazle modura erabili ahal izango dira agiri honetako 8. atalean iradokitakoak, edo egokitzen jo daitezkeen beste batzuk.
- Ingurumen jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusi den aurrekontua.

## 7.8. Laburpen ez teknikoa

Ingurumen azterketa estrategikoan helarazitako informazioaren laburpen ez tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatza emango duena publiko orokorrak ulertzeko moduan.

Laburpen horretan, honakoak jasoko dira gutxienez HAPO egitearekin lortu nahi diren helburu orokorrak; aztertu diren alternatibak; horietako bakoitzak ingurumenean eragingo dituen ondorioen laburpena; eta azkenean erabakitako irtenbidea edo irtenbideak aukeratzeko arrazoiak.

Laburpen horren osagarri gisa, diseinatutako neurri zuzentzaileak deskribatuko dira, eta herritarren zein administrazioen parte-hartze prozesuko ondorioak adierazi.

Era berean, alderdi aipagarrienen dokumentazio grafikoa erantsiko zaio.

## 7.9 Alternatibei eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena





Alternatiben azterketari erantsiko zaio gutxi gorabeherako azterlan ekonomiko bat, kostuaren eta onuraren azterketa eta azterketa ekonomiko eta finantzarioa aintzat hartuta, eta, ahal den neurrian, ingurumen eta gizarte alorreko kanpoko gastuen azterketa ere sartuta.

Halaber, apartatu horretan sartuko da HAPOa aplikatzeak izan ditzakeen eragin negatiboak prebenitzera, murriztera edo konpontzera bideratutako neurrien kostuaren zenbatespen eta/edo aurrekontu xehatu bat, bermatzeko bertatik eratorritako ingurumen kostuak internalizatzen direla. Neurri horiek finantzatzeko moduak ere sartu beharko dira, Lizartzako Udalaren kargura egin beharrekoak eta, hala badagokio, hirigintza proiektu edo jarduketan sustatzaileek hartu beharrekoak bereiziz.

## **8.- INGURUMEN EBALUAZIOAN ETA IKUSKAPEN PROGRAMAN AINTZAT HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOEN PROPOSAMENA**

Alternatiben ingurumen ebaluazioa egiteko eta ikuskapen programarako hautatutako adierazleak adierazle konbinazio bat izango dira, eta aukera emango dute egiaztatzeko betetzen direla, alde batetik, HAPOak bere gain hartzen dituen ingurumen helburuak, eta, bestetik, plana garatzen den bitartean aurreikusitako ingurumen eraginek. Era horretan, ingurumen helburuak betetzen ez badira edo horietan aldaketak sortzen badira, neurri zuzentzaile osagarriak txertatu ahal izango dira.

Ingurumen adierazleak:

- Zehaztutako ingurumen helburuekin eta irizpideekin lotuak egon behar dute, HAPOa egiten eta ezartzen esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzen lagunduko dien benetako kudeaketa tresna moduan funtziona dezaten.
- Neurgarriak izan behar dira, eta denbora serie jakinetan aztertzeko modukoak. Denboran zeharreko aldagarritasuna adierazteko modukoak izan behar dira, haiek aztertzea zilegi izan dadin, joera negatiboak prebenitu edo zuzentzeko.
- Gutxi izan behar dira kopuruan, eragindako eragile guztiek erraz uler ditzaten. Horretarako, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dira.
- Eskuragarri egon behar dute, adierazle horiek lortzeko informazio iturri askotara jo beharrik gabe.

Lizartza udalerrriaren ezaugarriak eta aurrerakinean eta hasierako dokumentu estrategikoan jasotako planteamenduak aintzat hartuta, adierazle erabilgarriak izan daitezke lurzorua kontsumoa baloratzera bideratutakoak (azalera artifizializatua, azalera osotik), udalerrian dauden balio estrategiko handiko lurzoruen ehunekoa, Batasunaren intereseko habitatek eta intereseko landarediak okupatutako azalaren ehunekoa eta abar. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak zuzendaritza honek egindako kontsulten izapideari erantzuteko proposatutako *ingurumen helburuen adierazleak eta jasangarritasun printzipioak* txertatzea baloratuko da.

## **9.- INFORMAZIO ETA KONTSULTA MODALITATEAK**

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 21. eta 22. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 12. artikuluan informazio eta kontsulta modalitateen inguruan xedatutakoari jarraituz, Lizartzako Udalak honako jarduketa hauek egingo ditu HAPOaren prozedura substantiboan aurreikusitako izapideen barruan:

- a) Ukitutako herri administrazioei eta herritar interesdunei kontsulta egingo die, planaren edo programaren alde aurreko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruz.



b) Plan edo programaren hasierako bertsioaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren informazio publikoa, aldizkari ofizialean iragarki bat jarritz. 45 egun izango dira, gutxienez, aztertzeko eta oharrak helarazteko.

Hori guztia egiteko, ukitutako administrazio publikotzat eta publiko interesduntzat joko dira Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzak irismen agiri hau egiteko kontsultatutako administrazio, entitate eta pertsonak —agiri honetako 2. apartatuan zehaztutakoak—, baita plan izapidetzeko prozesuan zehar udalak identifikatu ditzakeen bestelako erakunde eta interesdunak ere (ukitutako partzelen jabeak, herritar elkarteak eta abar).

## **10.- INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO EPEALDIAREN OSTEAN PLANEAN IZAN DAITEZKEEN ALDAKETAK**

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, 24. eta 25. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko Prozedura arautzen duenaren, 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz, plana edo programa behin betiko onartu aurretik Lizartzako Udalak Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari eskatuko dio ingurumen adierazpen estrategikoa egin dezala, eta eskaera horretan ingurumen azterketa estrategikoaren espediente osoa sartu beharko du, hauek osatutakoa:

- HAPOaren hirigintza dokumentuak.
- Ingurumen azterlan estrategikoak.
- Dagokion araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen kopiak eta kontsulta eta informazio publikoko izapideetan egindako alegazioak.
- Laburpen dokumentu bat. Bertan, Lizartzako Udalak deskribatu beharko du nola txertatu diren HAPOaren azken proposamenean ingurumeneko alderdiak, ingurumen azterketa estrategikokoak, eta nola egokitu den irismen dokumentura, zeintzuk izan diren egindako kontsulten emaitzak eta nola hartu diren kontuan.

Halaber, kontuan hartu beharko da plana izapidetzean eta gero kontsulta eta informazio publikoko izapidearen ondoren aldaketak proposatzen badira, ingurumenean ebaluatu gabeko eragin nabarmenak izan ditzaketenak eta, edozein kasutan, 211/2012 Dekretuaren, 4. artikuluan jasotako kasuren bat bada, Udalak zuzendaritza honi jakinarazi beharko diola, eta plan edo programan aldatutako alderdiak ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa bidali beharko duela.

Donostia, 2024ko uztailaren 30a.

Ingurumen Administrazioaren Zuzendari Nagusia,

Baja izateagatik: MONICA PEDREIRA  
Trantsizio Ekologikoko Zuzendari Nagusia

LIZARTZako Udala.-